



ARGIA

Pirinioetako basoak arriskuan

1.200 futbol-zelai adina pagadi zerratu nahi ditu Florian italiar multinazionalak urtero

23-27. orriak

2.720 | 2021 / 02 / 14 | 3,90 €




Txertoen jabegoa nork kenduko die multinazionaleri?

10 | COVID-19



Osasun arretan hizkuntzak duen garrantziaz

32 | IKER VILLANUEVA



Banatu ditugu 32. Argia Sariak

36 | KOMUNIKAZIOA

Artikulu hauek erositako
ekarpen ekonomikoa
egingo diozu

Bilboko Mbolo Moye

Doole elkarteari.

Atera aldarria kalera
euskaraz eta wolofez!

24€



8€

15€

Eskaerak egiteko:

943 37 15 45

argia.eus/azoka

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

- 19 | KARMELO LANDA
- 20 | SONIA GONZÁLEZ
- 21 | ZIGOR ETXEBURUA
- 21 | CASTILLO SUÁREZ
- 22 | IMANOL ALVAREZ

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: FERNANDO LAKUNZA
- 54 | BERANDUEGI



D. SCHLUDI

10 | **MUNDU OSORA COVID-19 TXERTOIA IRISTEKO BIDEAK**

Net Hurbil atalean Pello Zubiriak azaldu du mundu mailako zer ekimen dauden, egun irabazi pribatuen esku dauden txertoak iritsi daitezen herrialde txiroetara ere. Patenteen zilegitasunari buruzko galderak hauspotu ditu egoerak.

Elkarrizketak eta erreportajeak

14 | PERTSONAIA | MARTA C. DEHESA "Segurtasun juridikorik gabe gaude sortzaileok, linboan"

Miel A. Elustondo

23 | INGURUMENA | ZERRATEGI INDUSTRIALA Gure pagadiak mozteko bidea ireki diote instituzioek italiar multinazional bati

Jenofa Berhokoirigoin

28 | FEMINISMOA | MIJO LIZARZABURU "Maitatu zure burua' leloa sistemaren tranpa da"

Miren Osa Galdona

30 | OSASUN MENTALA Munstroak maskota bilakatzeko serigrafia tailerra

Zigor Olabarria Oleaga

32 | EUSKARA | IKER VILLANUEVA MEDIKUA "Osakidetzaren lakura etengabe ari da heltzen ur zikina errekatik, ikasle erdaldunak"

Onintza Irureta Azkune

36 | ARGIA SARIAK 2021 Munduan badira kirats eta lurrinak

Itsaso Zubiria Etxeberria

44 | KULTURA | IDA LUPINO Pobreen begirada itzaltsua

Julen Azpitarte

46 | KULTURA Uharte baten aukeraz

Jone Alaitz Uriarte

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea

Lehendakaria
Bego Zuza

Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Ixone Arana, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel García, Oihane Arretxea, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartziandia

Argazkilaria
Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

Salmenta
Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012

ISSN
0213-909X

Batzorde parekidea
72562 E

GIUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

anotza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Estali azkar

Urteurrenean, marketinga aurreratu da gehien: minutu bateko isilunea gorde dute Joaquin Beltran eta Alberto Sololuzeren izenean, zaborpean geratu zirenean lau egunez mutu egon ziren kargu publikoek; eta "0 gunetik" argazkian zuri-garbi irten dira egungo Ingurumen sailburu Arantxa Tapia eta lehendakari-orde Josu Erkoreka, azken hau trajediaren egunetan Anbotoko gailurretik selfieak bidali zituen. Erantzukizun osoa Verter Recycling enpresarena dela eta oraindik agertu ez den Beltranen gorpua bilatzeko "aukera guztiak arakatu ostean", zabortegia zigilatuko dutela iragarri du Jaurlaritzak: "Behin betiko itxiko da".

Pena da, 24 urte lehenago, Zaldibarko Udalak 1997an jada horixe erabaki baitzuen, zabortegirik gabeko herri izendatuz bere burua. EAJk eta PSOEk udal hauteskundeak galdu baino 11 egun lehenago zabortegi honen negozioari atzeko atea zabaldu ez baliote, orain ez lukete hau zigilatzeko presarik izango, isuritako guztia eta bere jatorria ikertu aurretik.

Otsailaren 6an bete du Lurrak eguzkiaren inguruan bira, Zaldibarren zaborra oka egin eta egunero gure zabortegi eta erraustegietan gertatzen dena bistaratu zuenetik.



**GASTEIZKO UDALAK ERREGE
MAGOAK ALDATUKO DITUELA
JAKINARAZI DU, 40 URTEZ PAPER
HORI BETE DUTENEK EZ DAKITELAKO
EUSKARAZ ETA EZ DUTELAKO
GAITASUNIK HAURREN HIZKUNTZA
ESKUBIDEAK BERMATZEKO**



ORAIN, UME GEHIENAK,
GUZTIAK EZ ESATEARREN,
ELEBIDUNAK DIRA ETA
ESKAINTZEN DIZKIEGUN
EKITALDIAK, OFIZIALAK DIREN
BI HIZKUNTZETAN EMATEA
BERMATU BEHAR DUGU.
HAURREN INTERES GORENEAN
PENTSATUZ

@gorka_urbaran



EJ-REN NAZIONALISMOA
PARANOIATIK GERTU DAGO.
GASTEIZEK EZ DU MEREZI
ALKATE HAIN SEKTARIOA

@lnakiOyarzabal



40 URTE BADARAMATZATE,
BADA GARAIA. GAINERA,
EUSKARAZ HARRERA EGITEKO
BETEBEHARRA DUTELA
USTE DUT ETA EZ BADAHITE,
SENTITZEN DUT, ERRETIRATU
EGIN BEHAR DUTE

Juan Rodriguez



KOHERENTZIAGATIK, EUSKARAZ
EZ DAKITEN UDAL GOBERNUKO
HIRU ZINEGOTZIEN DIMISIOA
ESKATU IZANA ESPERO DUT,
HERRITARRAK BI HIZKUNTZATAN
ARTATZEKO

Lorena Barrio



HALA BEGI

Lau urteko kartzela zigorra Barbado eta Zelaiarentzat

ARGIA

Amurrioko Galder Barbado eta Gasteizko Aitor Zelaia gazteei lau urteko espetxe zigorra ezarri die Espainiako Auzitegi Nazionalak. “Armak eta munizioa gordetzea” eta “helburu terroristarekin substantzia eta gailu lehergarriak gordetzea eta horiekin trafikatzeari” leporatu diete. Barbado eta Zelaiaren defentsek epaiari helegitea jarri diote.

Ángela Murillo izan da epailea, ezaguna Euskal Herrian, besteak beste 18/98 auzian izan zuen rolagatik eta 2017an esan zuelako ez zuela ETaren armagabetzea sinesten. Fiskala ere ez da ezezaguna gurean: Altsasuko gazteen kasuan aritu zen José Perals.

Gazte arabarrak duela bi urte atxilotu zituzten, material lehergarria zuen bidoi batekin harremana izatea egotzita. Sei hilabete izan ziren kartzelan, eta ordutik baldintzapeko askatasunean dira.

“Epaizten dena da gure militantzia politikoa: ezker abertzalean zer paper izan dugun, zein ekitaldietan egon garen, norekin... Urtetan kozinatu duten operazioa dela erakusten du txostenak” kontatu du ARGIAN Galder Barbado berak, auzia hasi baino egun pare bat lehenago.

ANKERKERIARI STOP!

Auzia abiatu bezperetan, ANkerkeriari Stop! plataforma jaio zen, Barbado eta Zelaiari babesa adierazteko asmoz. Epaia jakin ostean ere, mobilizazioak egin dituzte, plataformak deituta. Prozedura eta epaiketa guztia “fartsa” bat izan dela salatu dute, eta agerian utzi dituela espainiar justiziaren izaera eta hau indarrean mantentzeko erabiltzen dituen “mekanismoak”.

Egin nirekin



ARITZ GALARRAGA

Maistra bat, Marina Garces. Ez dakit zer pentsatuko duen hartaz Jordi Llovetek. Tira, bai, badakit urriaren 1eko epaiketean esandako batzuk gaitzetsi zizkiola, aski filosofiko ez zirela iritzita. Eta Garcesek bere nahigabea adierazi zuela. Baina agian partekatzen dute dirudiena baino gehiago –argitaletxea, Institut d'Humanitats delakoan parte hartu izan dute biek-. Gainera, harritzen nau Llovetek halako gauzeekin denbora galitzeak, letretako jendea izanik, oinezko politikaren txikieriekin. Dena delakoarekin, ez daukat problemarik, gertatzen baitzait antipodetako idazleak, etsaituta diruditenak, atsegin ahal ditudala, berdin zaizkidala jakingarri. Ez dut baldintzarik gabeko atxikimendurik: bakoitzetik behar dudana hartu, eta aitzina beti.

Garces, beraz, ateratzen duen liburu berri bakoitza da festa bat. *Escola d'aprenents* izena du azkenak, zeinak hezkuntzari buruz galdetzeraz garrantzian, nola hezi nahi dugun galdetzeak nola bizi nahi dugun galdetzea dakarrelako. Ikasle baino ikastun baikara gizaki oro, etengabe ikasten ari garenak eskola arautuan derrigor egon beharrik gabe. Zer ikas dezakegu batzuok besteongandik? Erronka litzateke norbera izan dadila gauza norbere kontura pentsatzeko, besteekin batera, garaian garai-ko arazoez. Eta, horra iristeko, irakasle benazkoak, ez “egin nik bezala” diotenak, baizik “egin nirekin”. Elkarrekin har dezagun ikasteko arriskua.

Eskola, hartara, heziketa hartzen duen gune nagusi gisara, ez da soilik goiz jaikitzen edo sari baten truke edozer gauza egiten ikasteko leku bat, ezpada irakasleen eta ikasleen arteko elkar-keretatik sortzen dena ikasteko, gizarte bezala, bere osotasunean, jakintzaren inguruko eztabaida gure gain hartzeko. Noski, gauza guztien soluzio izan gabe. Baina gaur inoiz baino gehiago babes-leku, gorputz-arimaren. Haurrak ez baititugu eskolatzen maita gaitzaten. Ahalik eta bizimodurik beteena izan dezaten baizik. ●



“PREFETAK HISTORIA ERREPIKATU NAHI BADU, MOBILIZATU EGINGO GARA”

ELB, IPAR EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN SINDIKATUA

Hegazi gripearen aurrean, ahate etxaldeak defendatzeko protestak antolatu dituzte langileek. 2017ko gripea gogoan, historia errepikatu nahi badu mobilizatu egingo direla esan dio ELBk prefetari –2017an, nekazariak aurre egin zieten jendarmeei–. “Soilik sano diren hegaziak hiltzen ez badituzte ekidin ahal izanen da konfrontazio irudia”. Behar izanez gero “bataila antolatzeko” deia egin du ELBk, “unea iristen denean behar bezala erantzungo duen sare bat prest izateko”. **2021/02/01**



Davalor kasua ez da bakarria



JUAN MARI ARREGI

Mikel Irujok Manu Ayerdi (EAJ) ordezkatu du Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Enpresa Garapeneko kontseilari karguan. Ayerdik dimisioa eman zuen Davalor auzia delakoan, 2015 eta 2017 artean enpresa horri emandako 2,6 milioi euroko ustezko laguntza irregularrengatik. Sodena sozietate publikoaren bidez esleitutako emakida ez zen txosten teknikoetan oinarritu, baizik eta Ayerdik uste zuelako optikaren sektoreko enpresa hori estrategikoa zela Nafarroarentzat. Azkenean, laguntzak jaso arren, Davalorrekin porrot egin zuen eta diru publikoa galdu egin zen. Nafarroako eskuin politikoa eta mediatikoari antzeko kasuak leheritu zaizkio agintean egon denean, baina oraingoan aprobetxatu du Manu Ayerdi ustelkeriaz akusatzeak, fariseuen gisan.

Ayerdiri ekar leizikiokkeen erantzukizun politikoa eta penalak alde batera utzita, Davalorrekin zalantzan jartzen du krisian dauden enpresei gobernuek ematen dizkieten laguntza publikoen politika. Davalor kasua ez da bakarria ez Nafarroan -Trimin Minerals, Sunsunegi eta beste batzuk gogoratu ditzakegu hemen- ez beste lurraldeetan ere. Ez dira gutxi funts publikoetatik milioika euro jaso dituzten enpresak; horretarako, eskubideen murrizketak ezarri dizkiete langileei, eta azkenean, enpresa ardura dunek eskuak garbitu izan dituzte.

Orain, Next Generation EU funts europarrak iristen direnean, antzeko egoerak gerta daitezke. Gobernuek gardentasun eta kontrol neurri zorrotzak hartu beharko dituzte hori saihesteko eta, bereziki, funtsen banaketak enplegu duina eta langileen eta gehiengo sozialaren eskubideak bermatzeko balio dezan. Eta, logikoa denez, neurri bereziak ere hartu beharko dira deslokalizazioak gerta ez daitezen eta arduradunek ez dezaten ihes egin. ●


Ikasketa librea ez da hain librea

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Ikasketa prozesua haurren interes eta jakin-minetatik abiatzea ez da premia txarra, baina ñabardura inportantea egin du Ani Perez pedagogoak: haurren testuinguru sozial, ekonomiko eta kulturalak eragina du interes eta jakin-min horietan, ez baita gauza bera esaterako liburuz betetako etxe batean edo libururik gabekoan bizitzea, eta horregatik, bidelagun bakarrik ez, akuilu ere izan behar du hezitzaileak, haurrak aukera guztiak eskura dituela ziurtatzeko.

Teoriak teoria eta pedagogiak pedagogia, ikuspegi hori oso presente izan beharko genuke: atzean geratzeko arrisku handiagoa dutenen akuilu izan behar du eskolak, gizarte desorekatu honetan funtzio orekatzaileak behar du egon hezkuntzaren xede eta erronka nagusien artean. Ekitatea deitzen zaio horri, espiritu berdinzalea, ez ikasle homogeneoak sortzeko, baizik eta akademikoki eta baliabide aldetik erraztasun handienak dituztenen eta zailtasun gehien dutenen artean distantzia ahalik eta txikiena izan dadin, hormak eta aurreiritziak gaintuz ez dadin betikotu betikoen arrakasta eta betikoen eskola-porrota, bermatu dadin premia dutenengan benetan jartzen duela arreta hezkuntza komunitateak.

Ikastola eta eskola publikoaren arteko ika-mikak etorkizunerako nahi dugun eskola ereduaz gogoetatzeko parada ere eman duen honetan, ez da norabide txarra ekitatea: izan dadila gure hezkuntza sistemaren kalitatea neurtuko duen adierazle garrantzitsua, ez baitu askorako balio hezkuntza ibilbide primerakoa egin duten neska-mutilak harro erakusteak, atzean geratu direnen -eta galdutzat eman ditugunen- zakua handitzen badoa. Zaurgarriak are zaurgarriago bilakatu dituen pandemia garaioan, gure gizarte ereduaren amildegi eta arrakalak gero eta sakonagoak diren garaioan, izan dezatela ikastetxeek eta ikasgelek helburu amildegien gainean zubiak eraikitzea. ●



Bost urteko kartzela zigorra 129 emakume biluzik grabatzeagatik

ARGIA

Fiskaltzak 409 urteko kartzela zigorra eskatu zuen Iruñeko modelo agentzia bateko buru zen Daniel L.O.rentzat. Epaiketa egin gabe, ordea, aldeek akordioa lortu dute eta 115 urteko kartzela zigorra onartu du akusatuak. Bost urte egingo ditu espetxean.

DELITUA

380.000 euroko kalte-ordaina eta 798.000 euroko isuna ordaindu behar du Daniel L.O.k. Akusatuaren etxean CDak eta DVDak aurkitu dituzte eta emakumeen argazkiak eta bideoak bil-tzen dituzten USB gailuak ere bai. Interneten zabaldu dituen arrastorik ez dute aurkitu. Argazkia ateratzen zien emakumeei, arropa jantzita, baina ondoren, bainuko arropa jartzeko eskatzen zien eta hori egin bitartean gelatik ateratzen zen. Gelan, tripode gainean, kamera uzten zuen piztuta grabatzen, emakumeek halakorik jakin gabe.

BIKTIMAK, HASERRE

Biktimetako batzuek epaia errefusatu, mobilizatu eta bilerak eskatu dituzte Nafarroako instituzioekin, "entzun diezaguten, ez gaituztelako kontuan hartu eta babesgabe egon garelako prozesu judizial guztian zehar, sei urtez".



TTIPITAPA


INAUTERI SEINALEA EGIN DUTE ITURENEN

ITUREN. Zubietako joaldunek urteroko bisita egin dute Iturenera otsailaren 1ean, baina beste urteetan baino askoz joaldun gutxiago bildu dira, eta Iturenen ez zuten ikuslerik zain. Herriari itzulia egin diote eta iturendar batzuk batu zaizkie bi herrietako kideen artean desfilea egiteko. Esku formako pankartak mezu hau zabaldu du: "2022an gozatuko ditugu. Zaindu".

GIZA TRAFIKOA

3 bider handitu da giza trafikoaren biktima diren adin txikikoen kopurua hamabost urtean. Neskak batez ere helburu sexualetarako esplotatzen dituzte eta mutikoak lan behartuetarako.

50.000 biktima identifikatu zituzten 2018an, baina egiazko kopurua askoz handiagoa dela dio NBEk, ezkutuan mantentzen den errealitatea baita.



TRANS LEGEA. Espainiako Gobernuak onartu nahi duen lege proiektuak ezabatu egiten ditu erregistro zibilean sexu aldaketa egiteko gaur egun indarrean dauden baldintzak: pertsona horren "berriarazko adierazpena" nahikoa izango da, medikuaren txostenaren beharrik gabe.



PRESOAK. Espainiako Barne ministro Fernando Grande-Marlaskak presoengandik etorriak zigortzeko asmoa du, Espainiako Senatuan jakinarazi duenez. Horretarako, Terrorismoaren Biktimen Babes Integraleko Legearen erreforman lanean ari da bere ministerioa.



EUSKARA. Lehen aldiko, euskararen aldeko komisia sortu da Ziburun. Kirol, kultur eta sozial arloko herriko 23 elkartetan eskatu dute komisia (Gurutze Gorria, Axut, Baltxan, Zokoako kirol elkarte, Errobiko kalli-joko taldea...) eta martxo hastapenean finkatu dute lehen bilkura.

MUNDUKO TXIROAK ZAIN: NORK KENDUKO DIE MULTINAZIONALEI COVID-19AREN TZAKO TXERTOEN JABEGOA?

COVID-19arentzako txertorik gabe gera daitezke 2021ean munduko herrialde txiroenetako hamar biztanletik bederatzia. Farmaziako korporazioek jada saldutako 100 txertotatik 53 herrialde aberatsek –euskaldunok tartean– erosiak zeuzkaten, mundutarren %14 baizik ez izan arren. Urte amaierarako, nazio pobreetan txertorik ez, baina aberatsetan, herritar bakoitza hiru aldiz txertatzeko adina edukiko dute.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Urte hasierarekin, COVID-19aren hirugarren eraso betean, alerta deia zabaldu dute hainbat erakunde humanitariok, tartean Amnistia Internazionalak, salatuz urte amaieran hamar biztanletatik bederatzia txertatu barik edukiko dituztela munduko 70 herrialde txiroenek, eta gobernuei bezala farmaziako industriari eskatuz mundutar guztiei iristeko adina txerto ekoizti eta banatzea.

Sinatzaileetakoa den People's Vaccine Allianceko Mohga Kamal Yanik esan du herrialde aberatsek urtean zehar eskuratuko dituztela beren herritar guztiak ez behin baina hirutan txertatzeko adina botika –Kanadaren kasuan baita bost aldiz ere–, eta bitartean, txiroenetan ez dutela edukiko zerekin immunizatu –ezta COVID-19aren kontrako borrokan arriskurik handienean ari diren profesionalak eta jende zaurgarrienak ere–. “Gaurko sisteman –esan du– farmaziako konpainiek diru publikoak eskuratzen dituzte beren ikerketetarako, baina lortutako sendagaien eskubide eskusiboak dauzkate gero, beren teknologia sekretupean atxikiz etekin ekonomikoak handitzeke. Honek bizi askoren galera ekar lezake”.

ADABAKIA 'COVAX' DEITZEN DA

Pandemia deklaratu berritan, 2020ko apirilean, OME Osasunaren Mundu Erakundeak Covax izeneko mekanismoa sortu zuen garatze bidean diren herrialdeen ezin hori arintzeko. OMEz gain, Covaxen partaide dira hainbat erakunde, bai publiko eta bai pribatu, tartean, Bill eta Melinda Gatesen fundazioa. Aberatsek bai baitakite arrautzak jartzen otar guztietan, bai botika garesti ekoiztuko duten konpainietan eta bai prezioa pagatu ezinik geratuko diren txiroenetako batzuei laguntzeko operazio filantropikoetan.

Covaxek orain arte 2.400 milioi dolar daramatza bilduta donatzaile publiko eta pribatuengandik, baina beste ia hainbeste falta zaizkio gutxieneko helburu diren 4.600 milioietara iristeko. Otsail honetan hastekoa zen solidaritatezko txertoak banatzen baina ez zen espero –kalkulua ofiziala da– 2021 amaierarako banatutako elkertasun dosiok 2.000 milioien muga gainditzea. Txertaketa bakoitzak bi dosi behar dituenez gehiengotan... kontuak ez dira ateratzen ongi, ez behintzat pandemia kontrolpean edukitzeko Lurra planetako 7.800 milioi jen-

deen %70ak txertatuta egon behar badu, OMEk behin eta berriz dioenez.

Covax itunak karitate publiko-pribatuz arazoa konpondu ezin duenez, zerbait erradikalagoa proposatu dute 100 herrialdek, India eta Hego Afrikak abiarazitako mugimenduan: MME Munduko Merkataritza Erakundeak patente eta jabego intelektualek indargabetu ditzala COVID-19ari dagozkionetan; horrela, pandemiari aurre egiteko botika, erremedio eta txertoak lortu ahal horien teknologia eta informazioak mundu guztiak erabili ahal izan ditzan, bidea irekiz askoz herrialde eta konpainia gehiagok ekoizteko txerto eta gainerrako produktuak.

AEB, Erresuma Batua eta beste herrialde boteretsuenak kontra azaldu zaizkie. Globalizazio neoliberalaren aitzindaria den MMEk, txiroen ezinegona baretu nahian, mekanismo *light* bat sortu du: botika berrion patenteen jabeek beren eskubideei aldi baterako borondatez uko egitea. Laster ikusi da inprobisatutako keinu bat baizik ez zela, farmaziako korporazio bakar batek ez baitio kosk egin bihotz oneko karitatea erakusteko aukeraren amuari.



M. LONGARI

Orain, Indiak eta Hego Afrikak jaurtitako eskariaren haritik patenteak liberalizatzeko proposamenari bultzada eman nahi diote zientzok erakunde humanitario eta aurrerazalek, tartean daude Amnesty International, Oxfam eta abar luze bat. Kanpainaren sinatzaileen artean dagoen Public Eye erakunde suitzarretik Patrick Durischek argudiatu du neurriak leukakeen garrantzia: "Patenteen indargabetze honek balioko luke uneotan urrea balio digun denbora irabazteko eta COVID-19aren kontrako erremintan ahalmena biderkatzeko, munduko eremu askotan konpondu barik dauden urgentziei erantzuteko".

NORK PATENTA LEZAKE EGUZKIA?

Ildo berean ari den beste erakunde bat da The People's Vaccine koalizioa, aldarrikatzen duena COVID-19aren kontrako txertoak mundu osoaren jabeago publikoak izan behar duela: "Patenterik gabe: herritarren txertoa, ez etekin ekonomikoaren txertoa. Ez du gu 'lehengo normal-

tasunera' itzuli nahi". Eredutzat gorapata dute Jonas Salk, 1952an poliomielitis beldurgarriarentzako txertoa asmatu zuena. Sekulako fama bildua zuen Salk doktoreari behin galdetu omen zioten ea nor izango zen txerto haren jabea eta berak: "Jendea. Ez dago patenterik. Ala zuk patentatu ahal izango zenuke eguzkia?".

Global Justice Now erakundeko zuzendari Nick Deardenek analisi fin batean laburbildu du jokoan dagoena *Big Pharma's finest hour* ("Farmaziako industriaren unerik loriatsuena") artikuluan. Deardenen iritzian, COVID-19aren txertoek konpainia horiei sekulako aukera ematen diete, beren etekinak hobetzeko baina batez ere beren irudi publiko hainbeste eskandaluk zikindutakoagarbitzeko.

Ez badiogu aurre egiten *Big Pharma*-ren ereduari –Nick Dearden mintzatuko da ondorengo lerroetan– koronabirusak jarraituko du munduan zehar barreiatzen, planeta mailako berdintasun eza sakontzen eta aldi berean, birusari au-

MUNDU MAILAKO IKUSPEGIA.

Herrialde txiroetan pandemia errotik geldiarazten ez bada, birus mutatuak herrialde aberetsak ere harrapatuko dituzte.

kera ematen mutatu eta arriskugarriago bihurtzeko, azkenean geure (Britainia Handitik ari da) etorkizuna ere baldintzatuz.

Ez da ahaztu behar, bestalde, txerto berriak lortu direla horietan inbertitutako dirutza publiko handiei esker. Zenbait kasutan, Moderna konpainiaren esaterako, ia osorik finantziatu da diru publikoz, baina lortutako produktuaren jabeago intelektuala esku pribatuetan geratu da.

Farmaziakoa da munduan etekin handienak ematen dituen industrietakoa. Zehazki COVID-19aren txertoen lasterketan buru belarri aritu diren lehen sei konpainia handien artean (kenduta Moderna, hau konpainia berria baita) 266.000 milioi dolarreko sarrerak eduki zituzten 2019an eta 46.000 milioiko



D. SCHLUDI

irabaziak. Aitzindari izatea lortu duen Pfizerrek diru sarrera handiagoak eduki ditu petrolioak gainezka daukan Kuwaitek edo Malaysiak baino; 2019an etekin handienak lortu zituzten munduko 30 konpainien artean egon zen Pfizer, 52.000 milioi dolarreko diru-sarrerak, 16.000 milioiko etekinak.

Big Pharma-k hainbeste aberastea lortu du Munduko Merkataritza Erakundeak patente eta jabego intelektualari buruzko itunekin beren botiken gainean hogeitaz urterako aitortzen dien monopolioari esker. Botika berrien prezioak garestitu ditzakete nahieran eta horiek osasungintza publikoan nagusitzea lortzen dute, mediku eta gainerako profesionalen gain daukaten eragin izugarriekin. "Alabaina -dio Global Justice Nowko zuzendariak- sistema monopolista hau eragozpen bihurtu da epe luzeko ikerketa sustatzeko. Beharrezko botika berrien ikerketa *Big Pharma*-k egiten du diru publikoa era masiboan injektatuta, baina gero jabego intelektual eta kudeaketaren monopolioa bere eskuetan atxikitzen ditu eta jarraitzen du etekin izugarriak ematen dizkion bere benetako negozioan, enpresa be-

rriak erosiz eta akzioen prezioak goian mantenduz. *Big Pharma*-k bere ikerketa zentratzen du batik bat tratamendu berriak pagatzeko dirua daukaten jendeen gaixotasun kronikoetan. Gizartea uzten dute pagatzeko dirurik ez daukaten jendeen gaixotasunentzako sendagairik gabe edo, antibiotikoak bezala, premia handiz behar ditugun botika berriak gabe. Sistema hau gaur egun *Big Pharma*-ren pentsaerak muinean itsatsita dauka".

JUSTIZIA VERSUS GLOBALIZAZIOAREN KEZKA

Eta oligopolioak jotako doinuan egiten dute dantza gainerako arizaleek, izan agintari politiko, ikerlari edo unibertsitarioek. Oxfordeko Unibertsitateak garatu duen txertoa hasiera batean esklusibitateari eta *royalty*-rik gabekoa izateko zen. Oxforden barruan ikerketa zeraman Jenner Institutuko zuzendariak erantzun zien horretaz galdezka ari ziren kazetariari: "Niri dagokidanez, ez dut uste pandemia garai batean lizentzia esklusiboak izan beharko lukeenik". Laster, ordea, AstraZeneca konpainiarekin egin zuten tratua eta kontua era-

EZ DA NAHIKOA IZANGO...

Multinazionalen borondatez emango dituzten txertoekin herrialde txiroek ez dute aski edukiko ezta arriskurik handiengan ari diren profesionalentzat ere.

bat aldatu zen: esklusibitatean oinarritu da ituna eta, konpainiak dioten arren ez duela etekin eramango, ez du erakutsi ez kontratuaren xehetasunik eta ezta txertoa lortzeko ikerlanen kalkulua zehatzirik ere.

Global Justice Nowko zuzendariaren ustean, koronabirusak ematen digu aukera "resetatzeko" botikak ekoizteko sistema hori, etenaz mundu mailako patente arauak, Hego Afrikak eta Indiak eskatzen duten moduan, edo gutxienez hitzartuz *open source* (iturri irekiak) gisako itun bat koronabirusari buruzko ikerketa medikuei dagokienean. Horrelako soluzioen gainean posible genuke botikak sortu eta partitzea baita pandemiaren haragoko eritasunetarako ere. "Ospitale eta klinikak -dio Deardenek- aginte publikoak kontrolatuta egotea normaltzat jotzen baldin badugu, zergatik ez dute egon behar berdin horietan erabiltzen diren botikek? Gure osasun

**ALBERT BOURLA**

Pfizer konpainiako zuzendari nagusia: argi eta garbi esan dio ezetz txertoen patentea libre uzteari.

PABLO MARTINEZ MONSIVAIS

zerbitzuak merkatuen esku ez uzteko bezain garrantzitsuak baldin badira, ondorioztatu behar dugu gu sendatuko gaituzten botiken ikerketa eta garapenak pakete berean joan behar duela”.

Pfizer izan zen iazko maiatzean patenterik gabeko ikerketa eta produkzio itun bat sortzeko proposamen berrioi farmaziako oligopoliotik erantzuten lehena, bere buruzagi exekutibo nagusia den Albert Bourlaren ahotik: “Garai hauetan horrelakorik aipatzea zentzurik gabea da... eta baita arriskutsua ere”. 2021ean Pfizerrek COVID-19arentzako txertoarekin 13.000 milioi dolarreko salmentak egitea espero duela jakinda, ulertzen zaio.

Lortuko ote du arrakastarik herrialde txiroek eta herri mugimenduek patenteak askatzeko daramaten kanpainak? Irakurleak ez du baikor izateko motibo handirik edukiko, ikusita pandemiaren logikak berak nola ahuldu eta askotan lurperatu ere egin dituen globalizazio neoliberalaren kontrako mugimenduak. Baina orduan... herrialde aberatsetan nola edo hala 2021ean zehar populazioaren zati oso handi bat txertatu arren ez ote du COVID-19ak kontrol barik jarraituko munduaren eremu oso zabalean?

Aberatsoi interesatzen zaigu, nonbait, mundu guztia immunizatzea. Eta hor sartzen da jokoan Bill eta Melinda Gate-

sen fundazioak txertoak unibertsalizatzeko sortutako Gavi deitutako aliantza publiko-pribatua, Munduko Merkataritza Erakundearen patente sistema ukitu gabe irtenbide bat lantzeko.

Gaviko zuzendaritzatik Rafael Vilasanjuaneke esan duenez, oker daude Ipar eta Mendebaldean beraiek txertatuz gero salbo egongo direla uste dutenak: immunitatea mundu osora hedatzen ez bada pandemia ez da amaituko, birusak erresistentziak garatuko ditu aldaera berriak sortuz. Hau jada jendeon osasun arazo izatetik iragan da mundu mailako segurtasun arazo izatera: “Pandemia geldiarazi gabe, globalizazioa ezinezkoa da”. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f w



Marta C. Dehesa

KULTUR ABOKATU AKTIBISTA



SEGURTASUN JURIDIKORIK GABE GAUDE SORTZAILEOK, LINBO BATEAN



Abokatu da, baina ezohikoa, kultur arloko aholkularitzan espezializaturik ari baita lanean. Aldi berean, ilustratzaile eta argazkilari ere bada. Sortzaile da, hortaz. Kultur langiletzat dauka bere burua eta, eskubideak eskas edota ezezagunak zaizkion kulturaren langile profesionalaren azalean bizi delarik, haren aldeko borroka bizi du.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Nekatuta zaudela esanez etorri zatazkit...

Gutziz akituta. Inguruan ez dut besterik ikusten, jendea nekatuta eta akituta dagoela, alegia. Kultur arloan lan egiten dugunok, berriz, nekatuta gaude fisiko-ki, eta akituta mentalki eta emozional-ki. Arrazoiak bistakoak dira eta, lehena, ziurgabetasuna da. Oso urte latza izan da, baina gure egoera latza da aspaldidanik. Era guztietako ziurgabetasuna bizi izan dugu: laborala, pertsonala, eta kulturala. Ez dakigu zer gertatuko den gure sektorean, baina uste dut, kulturari zer balio ematen dioten ikusita, amildegiaren ertz-ertzean gaudela, edo jarri gaituztela. Ez da, bakarrik, nola kudeatzen ari diren kultura, baizik gizarteak ere nola kontsideratzen duen gure lana.

Eta, bestalde, bada joera bat ahal duenak ahal duena egiteko.

Usteko nuen ahal duenak ahal duena egiten duela beti.

Ez. Nork bere aldetik joz gero, ez dago onik, galtzaile gertatuko gara denok. Kulturagileok, esan nahi dut. Gu piramidearen beheko aldean gaude, gehiago galtzeko arrisku gorrian, baina aktibismoan ari garenok ere nekatuta gaude. Ez dago erraz, ez kulturaz ez inon, baina ni kulturaz ari naiz, eta kultura arloan lan egiten dutenez, izan sortzaile, teknikari, liburuzain, museoko langile, biltegiko enplegatu... Kulturak profesional asko biltzen ditu, eta mugitzen du diru asko. Kulturak dirua sortzen du.

Noren sakelara doa kulturaren "diru asko" hori?

Tailerrak gidatu ohi ditut, eta betiko leloa da: "Estu eta larri bizi gara, oso prekario". Eta egia da, bada sare bat, sortzaileena, oso estu bizi direna. Sortzaile horiek sormena, talentua, denbora... eskaintzen dizkiote gizarteari beren lanaren bitartez. Kulturaren beheko estamentua osatzen dute, eta prekario bizi dira. Alabaina, Barne Produktu Gordinaz den bezainbatean, kulturak dirua mugitzen du, hainbat egiturak, enpresak eta bestelakok, dirua ibiltzen dute. Espainiako Estatuan, adibidez, BPGaren %5 kulturarena da. Eta, gogoan hartu, gure sektorean diru beltza ere ez dela arrotza. Dena dela, %5 ez da zenbaki txikia, diru inportantea baizik. Espainiako Estatuan,

Marta C. Dehesa

AMURRIO, 1976



Marta C. Dehesa Zuzenbide ikasketak egina, sindikatu bateko abokatu izan zen zenbait urtez, bere gisako kultur aholkularitza sortu zuen arte. Abokatu ezohikoa da: aktibista, sortzaile eta kultur eragile da, eta Mazoka marrazki azokaren kudeatzaile. Komunikazio grafikoa du pasio, argazkilari eta marrazkilari da, eta, ororen gaineratik, langile kontzientziaduna: "Ez alferrik naiz langile batent alaba", esan ohi duenez. Kultur arloko langileei zuzendutako presatuntza ikastaro eta tailerrak ere gidatzen ditu, aktibismoa hauspotuz, sortzaileen batasuna errebindicatuz, konformagaitza izanez.

turismoa dute diru gehien mugitzen duen sektorea: %10.

Kulturak eragiten duen ehunekoa aintzat hartzekoa da, zuk diozunez.

Eta gogoan hartu kultur gile askoren dirua ez doala zaku horretara, zeren eta eroldak, epigrafeak eta gainerakoak ez daude eguneratuta, eta, ondorioz, sortzaileak, autonomoak, Gizarte Segurantzaren barruan epigrafe ezberdinen azpian ageri dira: batzuk, turismo barruan; beste batzuk, zerbitzuetan... Baina musikari dira, edo dantzari, edo itzultzaile, edo idazle, edo zernahi.

Barkatu etenaraztea: zu zeu zer zaitugu?

Kultur abokatua, eta kultur kudeatzailea, ilustrazio azoka bat [Mazoka] antolatzen baitut. Baina Gizarte Segurantzara joan eta "Ekitaldi kudeaketa"-ren barruan nago, eta hori Merkataritzari dagokio, eta, beraz, okerra da, nik kultura besterik ez baitut antolatzen. %5 horri buruz ari nintzen, ordea. Etorri da pandemia, eta jipoia jaso dugu denok, bai beheko estamentuan gaudenok, bai ongi bizi diren kultur eragileek ere, zeren eta batzuk bapo bizi baitira kulturaren kontura. Ez naiz artista ezagunei buruz ari, hainbat egituraz baizik, izan argitaletxeak, izan diskografikoak eta beste. Dirua hortxe dabil, sortzailearen eskuetara heldu gabe, ordea.

Argitaletxeak eta diskografikoak aipatu dituzu, baina, haiek esan dutenez, pandemia honek egoera gorrian jarri ditu.

Behar bada ez direlako beren buruei eusteko gauza. Hori beste-lako afera bat da, nola egin behar dugun lan guk, sortzaileok, eta nola egin behar duten lan argitaletxeek. Zenbait proiektu mantentzerik ez dago. Oro har, jendeak badaki proiektu bati bi urtean eutsiz gero, bidea egingo duela. Bost urtean eutsiz gero, orduan eta segurtasun handiagoa, nahiz geroago ere gerta daitezkeen katastrofeak. Gure sektoreari dagokigunez, ordea, egunean egunekoarekin bizi gara, hala txikiok, nola handiak. Ez denak, baina bai bat baino gehiago.

Zergatik gertatzen da egunean egunekoarekin bizitze hori?

Kulturgintzan ez dagoelako epe ertaineko bisiorik. Batzuk berrogeitaka liburu argitaratzen tematuta bizi dira, diru-laguntza jaso eta urtea igaro ahal izateko, ondoko urtean jokaldi berdina egiteko. Gurpil zoro hori, alegia. Baina gauza ez da horrela, argitaletxeek proiektzio handieneko liburuak argitaratu behar dituzte, bidea egingo dutenak, atzerriko hizkuntzetara itzuliko direnak. Epe motzeko bisioak ez garamatza inora. Egiaz editatu behar da. Inprimatzea eta argitaratzea ez da aski. Bisioa behar da. Bestalde, jendeak ez dio kulturari garrantzirik ematen, eta horrek ere ez du batere laguntzen.

Baina diskurtsoak besterik dio, kultura gauza premiazkoa dugula, beharrezkoa.

Bai, diskurtsoa bai, baina diskurtsoaren arabera politikarik ez da egiten, hitzetan esaten dena ez da errealitate normatibora ekartzen, eta horrela alferrik da. Badago soluziorik, jakina, baina ez da epe motzekoa. Aldiz, zer nahi dute politikariek? Argazkia. Lau urte, edo bi, justifikatzeko balioko dion irudia. Politikariak hazia erein behar du, jakinda beste batek, hemen-dik hamar edo hamabost urtera, jasoko duela uzta. Horretan ez dira saiatzen politikariak, ez kultur arduradunak.

Hobe dugu klase kontzientzia eduki; sortzaileok langile gara, eta langileok batera jokatu behar dugu, bata besteari lehia egin gabe"

Zer diozu Europatik etortzekoak diren funtsen gainean? Helduko ote dira kulturara?

Horretaz den bezainbatean, oso momentu gozoan gaude, europar agendan kultura ageri delako: proiektuak ondo egiteko garaian gaude. Bestalde, Unescoren garapen jasagarriko helburuen agendan ere bitarteko garrantzizkotzat jotzen da kultura, gizarteari emozionalki eusteko, eta, hori ez ezik, baita, adibidez, pobreziaren kontra borrokatzeko tresna izateko ere. Kultura ez da, bakarrik, ondo pasatzeko gauza. Hori ere bada, baina, ororen gaineratik, osasuna bezain inportante kontsideratu beharko genuke. Kultura, alegia. Borroka egin behar dugu gure gobernu eta administrazioek lan egin



dezaten gizartea kontzientziarazteko, eta hori ez da lege edo araudi bat osatuz lortzen. Doako osasun zerbitzuak izatea oso da inportantea, baina hori bezain inportantea da haurrak komikia doan irakurtzeko aukera izatea. Kulturara doako sarbidea izan behar du haurrak.

Kultur langileak ere doan egin behar du lan?

Ez, haurrak kulturara doako sarbidea izateak ez du esan nahi guk musutruk lan egin behar dugunik. Edo subentzionatuta. Izan ere, horixe aditu behar izaten dugu askotan, subentzionatuta bizi garela. Aurten, eta iaz, behintzat, aldatu da diskurtso hori, edo ez da aditu. Kalera irten gara sortzaileak, protestan edota laguntza eske, eta, behingoarren, inork ez digu esan subentzionatuta gaudela. Momentua ez da aldrebesa: gizartea ez dago ados, baina ez dago gure kontra; Europako agendak tartea egin dio kulturari, eta horrek dirua esan nahi du; kulturaren bidez klima aldaketaren kontrako borrokari laguntzen diogula ere aditu dugu... Gauza asko da kultura, eta gauza asko egin daitezke kulturaren bidez.

Oraindik orain aurtengo kultur aurrikuspenak egiten jardun dute zenbait hedabidetan. Haien kultura zen atzerriko musika taldearen kontzertua, dantza konpainia sonatuaren saioa, edota halako

artistaren erakusketa handia.

Horrek ez dio laguntzen hemengo sortzaileari, izan idazle, musikari, ilustratzaile, teknikari. Ez dio laguntzen antzokiko garbitzaileari ere. Ikuskizunaren kultur ikuspegia dugu. Espektakulua. Askok ez ditu bereizten aisia eta kultura. Politikariak ere ez, askotan. Eta bien artean bada marra; marra fina, nahi baduzu. Ikuskizunak ere balio du, akabo, bada!, baina ikuskizuna eta kultura ez dira sinonimo. Jende asko kulturaren alde ari dira lanean, ez ikuskizunaren alde. Lege markoari begiratu gero, artistak dira kulturaren ardatz. Eta zein dira artistak? Bada, aktore-aktorea eta musikariak. Ez teknikariak, adibidez, nahiz zinema munduko teknikariak artista bezala kotizatzen duten.

Zergatik asmatu dute plazara irteten teknikari horiek, eta ez dira plazaratu, adibidez, ilustratzaile eta idazleak?

Teknikariak oso ondo mugitu dira kolektiboki. Administrazioari soluzioak eskatu behar dizkiogu, jakina baietz, baina geure artean ere hausnar egin behar dugu, eta kolektibizatu: nor bere gisara ibili gabe, denok batera jo behar dugu, baina transbertsalki, zeren eta, liburgintzan, adibidez, idazleak eta argitaletxeak ez dute interes bera. Politikariak zer egiten dute? Denak liburuaren zaku berean sartu eta kito! Ez, transbertsalki

ki egin behar dugu lan. Idazle eta ilustratzaileok, adibidez, errazago egingo dugu bat musikariekin, argitaletxearekin baino. Gu langile gara, besteren konturakoak batzuk, geure konturakoak gehienak; autonomo, alegia, geure buruak enplegatu eta bizirauten dugunok. Legeriak ez du horrelakorik jasotzen, eta oker hori zuzentzeko batu egin behar gara.

Teknikariak batu diren moduan, alegia.

Teknikariak ez dira zirristi-zarrasta ibili, badakite langile direla, emanaldirik antolatu ezik ez dutela lanik. Gure arazoa da, ordea, profesional autonomo izaeraren aurretik, gure bokazioa lehenesten dugula. Alabaina, jakin behar dugu guk geure lana merkaturatzen dugunean, baten bat dirua irabazten ari dela. Eman dezagun, dena delako erakusketa bat, adiskidearen tabernan. "Adiskidea dut, nola kobratuko diot, bada!". Ondo da, ez kobratu, baina nola-halako trukea egin, zeren eta erakusketa horrek zerbait itzuliko dio tabernariari. Batean, diruz; beste batean, publizitatez, edo auskalo. Teknikariak, beraz, kalera irten dira, eta gu ez, ez dugulako geure buruetan sinesten, ezta egiten dugun horretan ere.

Hara, bestea!

Ez, eta hiru bide ditugu zulo horretatik ateratzeko. Lehenik, geure buruetatik hasi behar dugu: informazioa behar dugu, informatuta egon behar dugu. Ez, bakarrik, nola egin behar dugun lan, bai zik eta nola dagoen merkatua, eta, horretarako, nahitaezkoa da gure arteko komunikazioa. Aldiz, bakarrik lan egiten ohituta gaude, bakarrik pentsatzen, geure buruarekin komunikatzen. Muga hori hautsi behar da. Bigarren, etengabeko prestakuntza behar dugu, merkataria erremintak zein diren jakin behar dugu.

"Merkataria erremintak"?

Bai. Merkatuaren tresna ohikoak: aurrekontuak, kontratuak, lanen balioa, nola mugitzen den sektorea... Horien jakinaren gainean bizi behar dugu. Enkarguak betetzea ez da nahikoa, zeure etxearen errenta ordaintzeko lain diru eduki nahi baduzu, saiatu beharra izango duzu. Informazioa behar dugu, eta formazioa. Gainera, oso sortzaile garenez, jakin-min handia dugu, baina lanbideari dagozkion jakingarriak ere barneratu behar ditugu. Dena ez da "sortu, asmatu, idatzi, marraztu, musika jo". Besterik behar da

itxuraz eta duin bizi ahal izateko. Alegia, profesionala izateko baitezpadakoak zaizkion tresnak ere ezagutu eta baliatu behar ditu.

Sortu ez besterik behar duela esan duzu...

Dudarik ez izan. Esate baterako, kideekin konektatuta egon behar du, oso garrantzizkoa da kolektibitatea, eta, horrekin batera, hobeko du klase kontzientzia edukiko. Sortzaileok langile gara, eta langileok batera jokatu behar dugu, batak besteari lehia egin gabe. Geure izenean hitz egiteko, kolektiboa osatu behar dugu, antolatuta, elkarteak osatu, haiek baitira solaskideak, ez indibiduo edo norbanakoak. Sortzaileon afera dugu hori, antolatzea. Norekin hitz egiten du Administrazioak? Ordezkaritza bat duen entitatearekin. Hortaz, ahaldundu beharrean gaude, eta, adibidez, egile eskubide zuzenen alde borrokatu patronalaren kontra, tarteko akordioak lor ditzagun.

Eta nork ekingo dio egiteko horri?

Zera bat esango dizut: kultur sortzaileok ez gara errekuperatu 2008ko krisitik. Nik hamar urte ere badaramatzat lan honetan, kultur abokatutzan eta aktibismoan,

eta egia da duela bizpahiru urtetik hona jendea kontzientziatuago ikusi dudala, elkartzeko gogoz, sindikatua osatzeko nahi eta ezinean. Eta pandemia egoeran ere jendeak aurrera egin nahi duela ikusi dut. Sortzaileok badugu kezka, baina kezkaz gain lan jakin bat egin behar da aurrera egiteko.

Zer diozu artistaren estatutuaz? Espainiako Gobernuak bazuen asmorik, eta Eusko Legebiltzarrean ere proposamena bat lantzen ari ote diren aditu da berrikitan...

Artistaren estatutua... Hasteko, esan behar da dena delako estatutu hori gartzeko bideorria markatu zuela espainiar gobernuak, zenbait aholku eta gomendio idatzian jarritz. Hala ere, estatutu horrek ez du "artista" izena aipatzen, "Sortzailearen eta kulturaren profesionalaren estatutua" baizik. Eta hori oso inportantea da, sektorearen espezifikotasuna onartzen baitute lehen aldiz, hau da, sortzen ez ezik, inguruan lan egiten duten guztien izaera. Gainera, dena delako estatutu hori pertsona fisiko indibiduali zuzenduta dago, besteren konturako langileei nahiz autonomoei. Zenbait kolektibo kanpo gelditu dira -patronala, besteak beste-, bai-

na, paradoxikoki, estatutua negoziatzen ari diren mahai sektorialetan presente daude patronalak! Eta hori arazo galanta iruditzen zait.

Zure ustez, patronalak ez luke behar mahai horietan?

Kontratatzaile diren aldetik, haien egoera ere aldatu egingo da. Hori egia da. Orain ari diren moduan, aski korapilo, konplikazio eta burokrazia gainditu behar dute, eta estatutuak koska horiek leuntzen ere lagunduko du. Azkenaz beste, estatutua lege multzo bat da, eta, honenbestez, kultura ez ezik, ogasuna, gizarte segurantzza, lana eta beste zenbait arlo ere kontenplatu behar ditu. Gehienak espainiar estatuari dagozkion neurri edota erabakiak izango dira, baina, beste batzuk, aldiz, EAEn eta Nafarroan onartu ahal direla iruditzen zait. Eta, onartuz gero, segurtasun juridiko ez txikia izango genuke sortzaileok, zeren eta orain segurtasun hori gabe baikaude, linbo batean. Legeak gauzak era jakin batera egin behar direla esateak ez du esan nahi legea ezin aldatuzkoa dela! Lan egin beharko dugu legea aldatzeko! Eta, horretarako, merkatua ezagutu behar da. Dena ez da, besterik gabe, epaiketara jotzea! ●

Otsailekoa, kalean!

**EUSKARA
IKASLEA
ZARA?
IRAKASLEA?**

- **EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT**
- **BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT**
- **10 ZENBAKI URTEAN**

Urte osoko harpidetza | Hego Euskal Herria eta Espainia | 29€ ● aizuEUS



Etxegileak

Ez gatoz hutsetik, ez gara hautsa. Euskaldunok badugu gure nazioa ondo sustraitu eta finkatzeko moduko oinarri zientifiko eta teorikoa, zorionean. Maisu bikainak izan ditugu XX. mendean zehar, nazioaren arkitektura eta diseinua modu miragarrian gauzatu dituztenak. Gaur mahaian gainera ekarri behar ditugu haien ekarpenak, horren beharrean gara.

Nazio baten bizkarrezurra hizkuntza bada, hortik hasi nahian abiatu zen prestu Salamancaraino 1958 hartan Koldo Mitxelena, euskarari lehen katedra unibertsitarioa eman eta, urteetara, ezinbestekoa genuen *koine dialektos* edo euskara bateratuaren oinarriak prestatzera. Hogeitaz lehenago frankisten heriotza zigorretik txiripaz libratu zen Mitxelena bera, orduko argaltasun estre-moaz baliatuz (euskararen orduko egeararen sinbolo), gerora euskara batuaren giharra izango zena. Txillardegik Parisko Sorbona lehen eta Ameriketako Estatu Batuetan Los Angeleseko UCLA gero hartu zituen ikas gunetzat, eta herrira itzultzean, funts teoriko osoz ondorioztatu zuen Euskara, eta are Euskal Herria bera, Estatu propioa izan beharrean dagoela ezinbestean, bizi nahi badu. Joxe Azurmendi, Arantzazun gihartu ondoren ere, Alemaniako Renanian, Münster hiriko unibertsitatean bihurtu zen goi mailako filosofo eta pentsalari. Euskal pentsamenduari arrazoia eman dio eta *pentsamendu espainiarra* hitz elkarke-ta bera zuzenean oximorona ez baldin

Independentziarako
bidea trazatu
egin behar dugu,
zehaztasunez, eta bidea
egin egungo sistema
politikoaren sareetan
endredatu gabe

bada, behintzat oso ahula eta kontrae-sanez josia badela frogatu du, suprema-zismo funts gabeaz eta faltsifikazio sa-sifilosofikoz hondatua. Gabriel Arestik ez zuen etxetik aldegin beharrik izan, Euskal Herriko metropoliak, Bilbok, eskaini ziolako aukera bai teorikoa bai praktikoa euskal nazioaren eraikuntzan, klase sozialen arteko talka bizi ondoren, Anton eta Gillen proiektu berean batu behar direla ondorioztatzeko.

Euskal nazioaren arkitektura modu zientifiko eta akademiko, etiko eta estetiko akabatuan eskaini ziguten. Modu politikora ekartzea behar genuen, behar dugu. Ez genuen horretan asmatu etxegileok. Zergatik?

Sugeen modura, frankismoak muda egin zuen trantsiziora, lehengo azala abandonatuz. Suge berrituaren begiradak liluratu ditu garai batean antifrankismoan kokatzen ziren antolakunde politiko zenbait, eta sozialismo espai-



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA


niarrak zein abertzaletasun tradizional euskaldunak Espainiako Estatu bihurtu dute kanpaleku, etxe berria (dela erre-publika, dela independentzia) bazter-tuz. Abertzaletasun berriak arriskatu zuen luzaro gurean, pentsatuz indarra izan zitekeela erditze mingarri baina eragingarri baten baldintza, eta doluz zein damuz aitortu behar izan du Estatu ilun hori are indartsuagoa dela eta indar mota ilunenak ere konplexurik gabe era-biltzen dituela, dela estatu terrorismoa, dela tortura sistematikoa, dela kartzela arbitrarioa, bere desarrazaia inposat-zeko, ezer negoziatu gabe. Ezin baitiote arrazoi demokratikoari biderik eman, ondorioz Estatuaren beraren desegitea-ri atea zabaldu gabe.

Zer egin orain, orduan? Nazioaren arkitektoek eman diguten diseinua hor dugu eskuragarri, eta honen nagusita-sun teoriko zein demokratikoa ukaezi-nak dira gaur egun. Euskaldunok arrazoia dugu, katalanek arrazoi demokratikoa bere alde duten bezala independentzia-ren bidean. Baina diseinu hori gauzatze-ko etxegile egokiak behar ditugu. Inde-pendentziarako bidea trazatu egin behar dugu, zehaztasunez, eta bidea egin egun-go sistema politikoaren sareetan endre-datuz gabe. Bidean jarri Kataluniako in-dependentisten modura, Eskozian eta Irlandan, adibidez, bide beretsua egiten ari diren etxegileen antzera. Independen-tziarako bide propioa Euskal Herrian. Ez sinbolikoa, ez itxura ematekoa. Etxe pro-pioa lortzeko modukoa. ●

Errudunak “gu”; erantzulerik ez



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



ANTTON OLARIAGA

Bilboko alkateak dio ostalaritzak ez daukala kulparik, errua “geuk” daukagula. “Geuk” hori bere ahotik entzun eta... geuk, nork? Agintariok? PNV-kook? Erabakiak hartzen dituzuenok? Ez, “geuk” diotenean “zuok, herritarrok” esan nahi dute.

Sari-zigor jokoan sartu gaituzte. Jendarte infantilizatua: ondo portatzen bazarete, saria; txarto portatzen zaretenean, zigorra. Gaizki jokatzeko hori euren aginduak jarraitzea besterik izan ez bada ere.

Bazekiten. Bazekiten zer gertatu behar zen Gabonetan. Orduko kutsapenak eta orduan kutsatutakoek kutsatutako beste guztiak ari dira ospitaleak betetzen ordudanik. Kontua ez zen ekonomia ala osasunaren arteko dikotomia, baizik eta herritarren aurrean ondo gelditzea. Kalkulu politikoez agindu zuten Gabonetan sari-opariarekin hastea.

Mahai baten bueltan maskara barik bazkaltzeak edo afaltzeak emaitza posible bakarria zeukan: baten bat kutsatuta egonez gero, besteak ere kutsatzea. Hortaz, mezu posible bakarria zen ez batzeko, ez sei, ez hamar. Puntu.

Adituek halako gomendioak mahai-gaineratzen dituztenean, agintariak “herritarrek ez dute ulertuko” erantzuten

omen diete. Baina ulertu, ondo ulertzen dugu; gustatu, beste gauza bat da. Eta PNVk ere ondo ulertzen du bere erronka dela pandemiaren amaierara ahalik eta higadura gutxienarekin heltzea, kudeatzaile onen mitoa jausten ari zaienez gero.

Eskerrak herritar asko agintariak baino zentzudunagoak izan diren. Hainbat eta hainbati entzun diegu, komunikabideetatik, ezetz, aurton etxeokak eta listo. Eta, bien bitartean, Gobernuaren bozeramalea azaltzen bere gurasoekin eta aitagin-amaginarrebarekin ere batu behar zela, eredu-edo ematen ari zelakoan.

Gertatutakoa gertatuta, hartutako erabakiak “geure gain hartzen ditugu, *asumitu* egiten ditugu” esaten entzun genuen Zupiria gerora. Zer esan nahi du horrek? Zein ondoriorekin? Erabaki politiko horiekin sorrarazi dituzuen hildakoak ere hartu behar dituzue zeuren gain, “*asumitu*” behar al dituzue? Dimisioa noizko, orduan? Ez bada “*asumitu*” diotenean “*bagenekien, berdin zigun eta berdin digu*” esan nahi dutela.

Jendeari esan zenioten horrela jokatzea ondo zegoela eta jendeak sinistu zuen hala zela. Jainkoarren! Erabakiak talde tekniko-zientifikoko batek hartzen dituela sinistarazi diezue askori, baina!

Eta hori gutxi balitz, gainera, segurtasun faltsuaren irudipena, eskuak garbitzeak, mahai erdian konpartitzekorik ez jartzeak edo ez abesteak ezer ekidin ahalko balu bezala. Zenbat ez ote dabilta orain buruari bueltaka, ea zelan den posible bere senidea hilda edo hilzorian egotea, dena ondo egin bazuten?

Rementeriak dio ez dela errudunak bilatzeko momentua. Ondo baino hobeto badakielako zer gertatzen ari den eguneko zentroetan eta egoitzetan. Lehen olatuan langile eta erabiltzaileak erruki barik jausi ziren. Inork espero ez zuen egoera bati aurre egin ziezaiotela ez dut nik orain eskatuko. Hala ere, hirugarren olatuan gaudela, luze egin genezake berba Bizkaiko Aldundiak berak zuzen kudeatzen dituen egoitzetan eta eguneko zentroetan gertatzen ari denaz. Adibide soil bat: maskara kirurgiko bakar bat egun osorako. Ez FFP2, ez ezer. Maskara kirurgiko soil bat! Imajina ezazue, gainera, zelan dagoen maskara hori lehen erabiltzailea lurrun artean dutxatu ostean. Rementeriak egoera onbidean jartzeko eta bitartekoak ipintzeko urtebete izan du, baina ez du egin, ez duelako nahi izan. Honek ere hildako eta gaixotutako guztiak bere gain hartu behar ditu, ezta “*compañero*”? ●

Elkartasuna txerto



**ZIGOR ETXEBURUA
URBIZU**
ZINEGOTZIA

Izan zen, behin, euskararen mesederako izan nahi omen zuen kanpaina bat, protagonista birus baten panpina zuena. Bada, hamabost urte geroago, benetako birus batek hankaz gora jarri du gure bizimodua, tartean ere euskaraz bizitzeko egiten dugun ahalegina.

Euskararen erabileran zeresana dutenek edota euskara erabiltzea hautazkoa ez dutenek erabaki dute une honetan ere ez dela euskara erabiltzeko une egokia, eta are gutxiago lehenestekoa. Osasungintza publikoa baldintza eskasekin mantentzen duten agintari neoliberalak, pandemia foamezko bolazoka estali asmo duten ertzain horiek edota txertoen VIP banaketak antolatatu dituzten handiki horiek, COVID-19arekin egin bezala, euskararen normalizazioa ere euskaldunon bizkar, eta soilik gure bizkar, utzi dute.

Garai berean, Txeroki herriak erabaki du Txeroki hitzun bakanak lehenestea COVID-19aren aurka txertatzean, beren kulturak iraun dezan. Gurean, ordea, Sars-Cov-2 horren aldaera endogenoak bailiran, biderkatu egin zaizkigu euskaraz bizi garenon aurkako erasoak. Horrela, hilabeteetan zehar, Jaurlearitzak nagusiki gaztelaniaz hedatu ditu pandemiaren ingurukoak; puztu egin da Euskal Telebistaren gaztelaniazko eskaintza, eta zornatzen jarraitu du

euskarazkoak; kolore guztietako poli-ziak euskaraz aritzearen aurka txertatuta agertu dira, adurra zeriela inoiz, gehiegi hartuta bezala; Osakidetza-ko batzuei birus linguistikoak lotsagabekeriarraino eboluzionatu die, euskaraz artatuak izan nahi dutela zehaztuta duten zenbaiti esan baitiete pandemiak ez zuela ahalbidetzen euskaraz artatzea.

Horrek guztiak hazkuntza likido baten antzera jokatu du, eta Donostiako Udal Gobernua ere kutsatu du. Horrela, egolatria bandera gora eta behera astinduz lantzen duen gure alkateak erabaki du, pandemiaren bigarren olatuaren erdian, diru sailak murriztea euskarazko hedabideei, euskara sustatzeko ekimenei, baita euskara ikasteko laguntzei ere. Ez du galdu, ordea, Euskaraldiaren buru agertzeko aukera, berak onartutako arau aldaketa bati esker, euskaraz ez dakiten zuzendari berriek beren lan taldeei euskaraz lan egitea zailtzen jarraitu duten bitartean, edota autobus publikoetako geltokietan publizitatea batez ere gaztelaniaz jartzen jarraitu badu ere.

Euskararen erabilera ahultzen duen gaitza detektatua dugu, gutxitutako kulturak are gehiago gutxiagotzen dituen egoismo kapitalista da, eta horren aurka behar duguna ahalduko gaituen elkartasunezko txertoa da. ●

Galtzearen arteaz



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Izateak era guztietako enkarguak jasotzea ekarri dit: senitartekoendako eskelak, lagunendako hiletetarako poemak, haur jaio berriendako opari-testuak, politikoendako hitzartzeak, Hiru Erregeendako diskurtsoak... Paperak ordenatzen ari naizela lagun bati egindako testuen karpeta aurkitu dut: erakunde nazional bateko lehendakari-artzarako aurkeztu behar zen, eta horren zaila zen egoera, ez zekien aterako zen ere. Bi testu prestatu nizkion: bata ateratzen baldin bazen irakurtzeko, eta bestea bozketa galtzen baldin bazuen

edukitzeko, zer gerta ere. Kargua hartu zuen bai, baina ez zuen asko iraun liskar-zaleen artean. Bere agurraren berri irratian ematen ari zirenean, Gasteizko kale batean nengoen, autoan sartuta, negarrez, neronek idatzi bai, baina nire egiten ez nituen hitzak entzuten. Ez genuen inoiz hitz egin testu hartaz. Ezin nuen ulertu erretiratzea ezer txarrik esan eta, areago, sentitu gabe. Baina 45 urte kostatu zait Elizabeth Bishopen hitzok nire egitea: “Bistan da: galtzearen artea ez da zaila ikasten/hondamendiaren traza izan dezakeen arren.” ●

ZERRATEGI INDUSTRIALAREN EGITASMOA PIRINIOETAN

Gure pagadiak mozteko bidea ireki diote instituzioek italiar multinazional bati

Italiako Florian enpresak zerrategi erraldoi bat kokatu nahi luke Okzitaniako Lannemezan hirian. Makroproiektu hau gauzatuko balitz, ahantzi Zuberoa, Nafarroa Beherea eta Lapurdiko oihanpe ederrak eta pagadi zabalak. Hain zuzen, Pirinio osoko pagoak liritezke ustiatuik segeria hornitzeko. Instituzio nagusiek eta oihangintzako egitura potoloenak oniritzia eman zioten 2019ko abenduan izenpeturiko gutun baten bidez. Horrela deskubritu zuten egitasmoa hautetsi eta herritarrek. Orduz geroztik, aurkako mobilizazioa indartuz doa.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Florian italiar multinazionala Pirinioetako pagadien begira dugu, neurritz-kanpoko gosearekin; eta bidea irekiz gero, erabat itxuraldaturik eta suntsiturik genituzke gure mendi eta oihanak. Hain zuzen, Lannemezan (Okzitania) hirian zerrategi industrial bat irekitzeko asmoa du multinazionalak, eta aurkezturiko zifrak asebetetzeko bidean, mendikate guztia litzateke ustiatuik –mozteen %40 Biarnoan eta Ipar Euskal Herrian litzateke, adibidez-. Horrez gain, kantitate guztia ez balu Pirinioetan biltzen ahal, Frantziako erdialdeko mendigunera ere bideratuko luke zuzaitzen mozketan, egitasmoaren aurkezpen txostenean agertzen denez. Arazo nagusia da, bizpahiru urtez diskretuki eraman lanari esker,

instituzio nagusien –Frantziako Estatuak, Okzitania Eskualdea, Lannemezango hiri eta hiri elkargoa– oniritziak eta finantzamenduak lortuik dituela.

Pascal Lachaud Capvern Okzitaniako herrixkako auzapez-ordeak kontatzen dio ARGIAri nola 2019ko abenduko herri elkargoko bilera batean deskubritu zuen Florianen makroproiektua: “Unilateralki aurkeztu ziguten, inolako kontzertazio eta negoziatorik gabe”. Garapen ekonomikoa helburu, pagadiak ustiatzeko bide berriak ikertzeko gogoetan kokatu zuen italiar multinazionalaren egitasmoa Lannemezango Herri Elkargoa. “Badu bizpahiru urte instituzioekin harremanetan zela enpresa. Nahiko arraroa da ohartzea hautetsi gisa proiektuari lotua zarela, baina inolako

kontzertaziorik gabe”, gehitzen du, kexu.

Dokumentu garrantzitsu bat du esku artean italiar multinazionalak: 2019ko abenduaren 16an hamabi egiturek izenpeturiko gutuna, zeinetan argiki bideratzen dizkieten haien baimena eta laguntza. Lannemezango Herri Elkargoa, prefekturak, Lannemezango Udala eta Okzitania Berriako Eskualde Kontseilua dira izenpetzaileen artean, baita oihangintza arloko egiturak ere –ONF oihangintza kudeatzen duen Frantziako egitura publikoa, Fibois Okzitaniako oihangintzako interprofesionala, Alliance Fôret Bois oihanen jabe pribatuen arteko kooperatiba, eta beste; COFOR oihanak dituzten herrietako elkarte ere alde agertu da, nahiz eta baldintza batzuk jarri-. Ikusirik, egitasmoa bidera-



ZUHAITZ MOZTE MASIBOA.
SOS Forêt Pyrenées taldeak egin konparaketari segi, urtero 1.200 futbol-zelairen heina luke moztuko Florian enpresak.

PXHERE.COM

tzeko bermerik gabe Florian enpresa ez litzatekela bertaratuko, gauzatu ahal izateko hainbat konpromiso zehazten dituzte gutunean.

Dokumentu hau irakurritz, ohar-tzen gara hastetik buru guztia lotzeko elementuak segurtaturik dituela multinazionalak. Hasteko, eskatzen duen pago kopurua: urtero 20.000 m³ zur bideratzeko engaiamendua harturik du ONF egiturak, Union Grand Sud izeneko udalen arteko egiturak bost urtez urtero 45.000 m³ furnitzekoa, eta Alliance Forêts Bois urtero 5.000 m³ segurtatzen dizkio –aldi oro ongi zehazturik, “eskaturiko kalitatezkoa” izanen dela hornigaia-. Ikerketa ezberdinen finantzatzeko engaiamendua harturik dute Okzitaniako Kontseiluak zein Frantziako Estatuak.

Segetria bideratzeak 11 milioi euroko kostua luke, eta instituzioen konpromisoei segi, %60 diru publikoz finantzatua litzateke. Makineria Florian enpresak ekarriko luke, baina terrenoa, obrak, eraikinak eta pagadietara heltzeko bide berrien eraikitze lanak instituzio publikoek ordainduko litzukete. “Onartezina” aurkakoentzat. Aski ez balitz ere, ondoko

konpromisioa ere hartzen dute gutunaren izenpetzaileek: “–Proiektuaren onespina helburutzat jarririk-, herritarrekin eta ingurumen arloko elkarteekin konzertazio bat eramateko engaiamendua”.



Argi ukan behar dugu Lannemezanen kokatua baldin bada ere segetria, Pirinioetako oihan guztiak dituztela ustiatuko”

Jean-Francois Blanco
hautetsi ekologista

Hego Euskal Herriko basoak oraingoz ez baditu begiztaturik ere, “arriskua” hor dagoela dio Jean-François Blanco Akitania eskualdeko hautetsi ekologistak: “Horretarako jabeen akordioa beharko luke enpresak... Baina ikusirik zer nolako zur kantitate beharko duen, argi da

ahal bezainbat hedatu nahiko duela”.

Hamabost urtez, urtero 50.000 m³ segetria nahi litzuzke; eta datu ofizialei segi, begiztaturik dituen pagoak kausitzeko gisan, 250.000 m³ litzuzke moztu beharko urtero –ekologisten kalkuluen arabera, 400.000 eta 540.000 m³ litzuzke segetriko-. Hain zuzen, zerrategira doan metro kubo batentzat zazpi eta hamaika metro kubo artean moztu behar izaten direlako. Desmasia irudikatzen konparaketa argia bideratzen dabil SOS Forêt Pyrenées egitura: urtero 1.200 futbol-zelairen heina luke moztuko.

“Ekozidio” bat, ekologisten ikuspegitik, klima larrialdiaren testuinguruan are onartezinagoa dena. Gaur egun moztzen dena baino bi edo hiru aldiz gehiago moztuko litzuzke Italiako enpresak. “Florian segetriak eskatzen duen zur kopuruari erantzuteak erran nahi luke Pirinioetako pagadiak azkarki hondatzen ditugula, bioaniztasuna gogorki kaltetuz; eta gainera, orain arteko oihangintzaren sektorea kolpatuz”, dio Pascal Lachaudek, Touche pas à ma forêt edo Ene oihana ez hunki kolektiboko bozeramailetarikoa ere denak.

Makroproiektuaren berri ukan bezain laster osatu zuten Touche pas à ma forêt kolektiboa, iazko otsailean hainbat herritar, egitura eta hautetsik. Berrogei egituraz gora biltzen ditu –sindikatuak, giza eskubideen eta ingurumenaren arloko elkarteak, zein alderdi politikoak–, baina 600 bat herritar ere. Biltzar publikoz biltzar publiko dabilta, orain arte instituzioetako bulegoetan diskretuki loturiko egitasmoa ezagutarazteko xedez. Makroproiektua ezagutzeko aukera emanez gero, argi da informatua izan nahi duela herritarrak. Horren lekuko, iazko ekainean antolaturiko lehen biltzura publikora 350 bat lagun hurbildu izana, eta ondokoetan ere kopuru handian bildu izana. Informatzeaz gain, herri-presioan ere dabil kolektiboa. 1.300 lagunek manifestazioa burutu zuten Lannemezanen iazko urrian, bezperan beste hainbeste bildu zirelarik Pirinioetan zehar antolaturiko bost martxa ezberdinetan. Segeria industrialaren kontrako petizioa ere dute 61.000 herritarrek izenpeturik.

ONF egitura publikoaren kalkuluei segi, galdetutakoaren %45 ez da zuzenean eskuragarri; hots, bideak eraiki behar liratezke –diru publikoarekin–, kostu ekologikoa eta ekonomikoa are gehiago puztuz. Euskal Herriko eta Bearnoko eremuetan oihanzaina eta SNUPFEN sindikatuko kide den Ramuntxo Teletxeak argi du: “Ezingo diogu erantzun Florian enpresaren eskaerari”. Kantitateaz gain, eskatzen duen kalitateari dagokionez ere ezinezkoa zaielako. “Kalitate oneko enbor lodiak” begiztaturik ditu multinazionalak. “Badu hogeita hamar urte baso publikoetako enbor lodien mozketak dela lehentasuna, hori horrela gehienak bildurik dira”.

“Florian taldeari enbor lodiak furnitu beharrean, zentzu onari segituz, oihanen utzi behar genituzke pusan, gero naturalki hiltzen utziz, basoan deskomposatzeko. Bestela, oihanek pobretzen jarraituko lukete, haien funtzionamendu ekologikoa are gehiago hondatuz, eta kapital ekonomikoa ere ttipituz”, kolektiboaren arabera. Iritzi berekoa da Teletxea: “Zuhaitz zaharrak behar ditugu, oihanaren ekosistemaren orekarako”. Dionaz, 130 urtez goragoko pagoei esker, “sekulako aberastasuna dugu” gure basoetan, baina aldi berean “biziki hauskorra” ere dena. Horregatik zaio “ezinbestekoa” zuhaitz zaharrak bizirik uztea, ekosistema osasuntsua segurtatzeko gisan.

IRITZI-BILKETA ABIARAZTEA LORTU DUTE

Mobilizazioari esker, iritzi bilketa bat abiatzea onartu zuen iazko azaroan Pirinio Garaietako Prefekturak. Egitasmoaren eramaileak, udalak, instituzioak, elkarteak, herritarrak... zerrategiaz hunkiak liratezkeen eragile guztien gogoe-tak biltzen hasiak dira. Lachaud haute-tsi militanteak Okzitaniako Kontseiluko presidentearen partetik jakin berri duenez, prozesu hau bidean deino moratoria bat finkatu dute. Horrez gain, exijitu bezala, kolektiboa inkestaren jarraipen-batzordean ere da, aitzinamendua hurbiletik segitzeko gisan.

Hala eta guztiz ere, mobilizazioa ez dute horretan uztekoa: “Proiektua bertan behera gelditu arte mobilizaturik egonen gira”. Zentzu horretara, urtarri-lean egindako biltzarrean, ondoko sei hilabeteetako protestak adostu zituzten. Okzitaniako Tolosako Capitoile plazan elkartuko dira otsailaren 14an eta hila-betero protesta bat bideratu ondoren, ekainaren 5 eta 6an berriz, Oihanaren Besta ospatuko dute Pirinio Garaietako baso batean.

HAUTETSIEN GEHIENGOAK EZ DU EGITASMOAREN BERRI UKAN

Alta, instituzioak gauzapearen alde engaiatu badira ere, kolektibitate hautetako hautetsiak ez dira informatuak izan. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako hautetsiekin mintzatzea aski da, ohar-tzeko ez dela egitasmoaz hitz egin. Xole Aire Urepeleko auzapezak zehaztu digunez, Euskal Hirigune Elkargoan ez da proiektuaren aurkezpenik egin. Haatik, aipagaien artean ukan zuten Garazi-Bai-gorri eremuko hautetsien arteko azken bileran. Zurarekin energia ekoizteko asmoz dabilen Sugarai egitasmoko ordezkariak egon ziren haien proiektuaren aurkezten. “Sugarai ttipi anitz muntatu nahi lituzkete Euskal Herrian barna, oihana gure eskuetan geldi dadin. Guk adibidez, Urepeleko ibarrarentzat begi onez ikusiko genuke horrelako proiektu bat”. Multinazionalaren aurkako adierazpenik ez bazen argiki atera ere, tokian-toki kudeaturiko oihangintzaren aldeko estrategia nagusitu zen bileran.

Gaurko egunean, ehun bat hautetsi dira kontra kokatu, Mendiko Hautetsien Gutuna izenpetuz; eta oraingoz 30 bat kolektibitatek dute aurkako delibero bat bozkaturia. Tartean dugu Louis Labadot Mauleko auzapeza; justuki irailean herri-



AURKAKO MOBILIZAZIOA ANTOLATUZ DOA.

3.000 lagunez gora batu ziren iazko udazkenean, segeriaren aurka antolaturiko martxa ezberdinetan.

ko etxean informazio-bilkura ere antolatzeko lagundu zuena. “Jakirik 1.600 herri direla hunkirik, ez da anitz. Horregatik zaigu ezinbestekoa informatze-lana, elementu guztiak esku artean ukanik argiki kontra kokatzeko direlako hautetsiak”. Lapurdi, Nafarroa Beherea zein Zuberoako herritar eta hautetsiak informatu nahian dabilta Touche pas à ma forêt kolektibokoak, segeria ez bada Euskal Herrian kokatzekoa ere, zuzenean hunkia litzatekeelako Euskal Herria.

Errotik egitasmoaren kontra da Blanco eta Dionaz, hautetsiek “sekulako ardura” dute: hauek kontra agertuz gero, ez lirateke eginen. “Argi ukan behar dugu segeria Lannemezanen kokatua baldin bada ere, guztiak hunkiak izanen garela, Pirinioetako oihan guztiak dituztelako ustiatuko”. Lehen lerroan jartzen ditu Alderdi Sozialistako hautetsiak, Okzitaniako Eskualdean eta Lannemezan hirian boterean direnak, eta orain arte alde kokaturikoak: “Erabakigarria izanen da sozialisten postura. Kontra direla argiki adieraziz gero, egitasmoa ezingo luke egin Florianek. Sekulako ardura dute sozialistek esku artean”. Ekainean egitekoak diren eskualde mailako hau-



VICTORIA KLOTZ

teskundeetako kanpaina inarrosi behar luke gaiak, bi itzulien arteko akordioak adosteko elementu saihestezin bihurtuz. Behintzat, Akitaniako Kontseilurako Europe Ecologie Berdeak alderdi ekologistak ez du aliantzarik onartuko Alderdi Sozialistarekin, azken honek ez dueino argiki segeriaren aurkako adierazpenik egiten. Hori segurtatu dio ARGIAri Blanco hautetsi ekologistak.

Instituzioen konpromisoak are harri-garriagoak dira ikusirik helburua ez dela betegarria. Hori guztia, enpresak hitzemandako 25 bat lanpostu eta oihangintzan ondorioztatutako beste ehun baten truke: ikusita albo-kalteak, pisu gutxi dute ehun bat enpleguek. "Ikusirik pago hornidurari buruzko arrisku eta ziurgabetasunak, lekutzea erabakitzen balu enpresak, orduan alferrik utzitako industriagune bat genuke kolektibitateen eskuetan. Porrota balitz, nagusiki herritarrek jasanen litzukete albo-kalteak", irakurri daiteke SOS forêt Pyrénées taldeak plazaraturiko dokumentuan.

Makroproiektu horren kontra badira ere, berez ez dira oihangintzaren garapenaren kontra.

GARAPEN EKONOMIKOAREN ALDE

Pirinioetako ekonomiaren parte handia biltzen du oihana lanabes duen aktibitate ekonomikoak eta ezinbestekotzat dute herritarrek bertan bizitzen gelditzeko bidean. Hori horrela, egitasmo alternatiboak proposatzen dabilta. Adibidez, ondokoa irakurri daiteke Mendiko Haute-tsién Gutunean: "Enpleguaren berlokali-zazio argia behar dute mendiarteko herri-tarrek, tokiko beharrei erantzuteko gisan; hori zuraren alorretik iragaiten da, materia honen erabilpena indartu eta berdefinitu behar dugu, 'oro-plastikoaren' logikarekin bukatzeko". Florianen egitasmoaren parean, alternatibei buruzko "gogoeta partekatu" bat hasteko deia luzatzen diete instituzioei, "aspirazio ekologiko, sozial eta ekonomikoen arteko oreka litzatekeen proiektu bat adosteko gisan".

Gaur egun aktibitatean dauden zerrategia txiki eta ertainez josiak dira Pirinioak, eta zailtasunak zailtasun -batez ere merkatu mundializatu baten menpe direlako- aitzina doa oihangintza. Segeria industrialaren etorrerak enpresa ttipiak zailtasunetan ezarriko litzuke, multinazionalaren parean pisu guti lukeelako. "Betikoa da: enplegu sortzaile

gisa aurkezten digute proiektua, baina errealitatean, enpleguak suntsituko litzuke, enpresa ttikiek ezingo luketelako biziraun", Blancoren hitzetan.

BIOMASA ZENTRAL BATEN XEDEARI LOTURIKO PROIEKTUA

Justu 2019an jaso zuen Lannemezango Bois Energie enpresak Frantziako Trantsizio Ekologikoaren ministerioaren partetik proiektu berri batentzako baime-na. Zehazki, 9 milioi euroko inbertsioa eskatuko lukeen biomasa zentral baten egitasmoa begi onez ikusten dute, garapen iraunkorraren filosofiarekin bat egiten duela azpimarratuz. Erabili ezin diren zurak eta zerratokietako zaborrak energia ekoizteko baliatu nahi litzuke enpresa honek. Urtean, 30.000 tona zur beharko litzuke elektrizitatea eta berotasuna produzitzeko. Hau ere beste makroproiektu bat.

Biomasa zentralaren eta segeria industrialaren xedeak elkar loturik direla diote italiar multinazionalaren proiektuaren aurkakoeak: kalitateagatik ala handitasunagatik, desegokiak diren zurak zentralera bideratzen ahalko litzuke, lasai asko. Gainera, zentralaren xedea



DANI BLANCO

aurkezturik duen enpresaren akzionarioen artean dago Energies Services Lannemezango sozietatea –honek Bernard Plano Lannemezango auzapeza duelarik presidente-. “Zuraren ustiapenak geroa segurtatua ukan dezake, eraikuntzara zein altzairugintzara bideratzerakoan karbonoa stockatzen dugulako; haatik, energiaren ekoizpenarekin kontuz ibili behar gara: beharrez horretara bideratu ditzazkegu hondarkinak, baina zur landugabeak ez, biomasa karbono isurtzailer delako ere”, dio Lachaudek.

Iritzi berekoa da Teletxea ere: “Biomasarena interesgarria izan daiteke, baldin eta eskala ttipian eta tokian-tokikoa baldin bada; baina biomasa zentral hau ez da egokia, makineria guztia ibilarazteko energia asko eskatzen duelako, eta azkenean, betikoa: zur asko jango luke energia gutti ekoizteko”. Behin baino gehiagotan luzatu izan dute abisua aditu eta zientifikoez ere: Europako Ingurumen Agentziako zientzia-batzordeak ohartarazirik du *bioerregaien* erabilerak karbono-emisioak gehitu ditzakeela; eta IPCC Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak ere ohartarazten digu biomasa ez dela karbonoan neutroa.

Kontua da Frantziako Gobernuak 2016-2026 urteentzako finkaturiko norabideen artean dugula oihanen kudeaketa hau, zuhaitzen mozte masibo eta industrialean zentratuturikoa. Hamabi

“

“Azkenean, galdera da: nolako oihanak nahi ditugu gure umeentzat? Basoa ez da mugagabea, eredu industrial honekin bukatu behar dugu”

Ramuntxo Teletxea
oihanzaina

milioi metro kubo gehiago ustiatzeko helburua finkaturik du dekretu bidez, energiaren ekoizpena bideratzeko asmoarekin. Ekologistek argi dute: “Bioenergiagatik basoak modu intentsiboan

eta etenik gabe ustiatzen badira, ezingo dute inoiz berreskuratu karbono-biltegi izaera”.

Hori horrela, biomasa energia iturri interesgarria baldin bada ere, modu industrialean antolatuz gero, onura baino kalte gehiago ekartzen ditu. Oihanak utzi behar dira, bizirik, zahartzen, ezinbestekoak direlako bai ekosistemaren orekarentzat, baita klima larrialdiaren aurkako borrokarako ere. “Beroketa globalaren kontrako borrokarako aliatuak ditugu zuhaitzak, baso zaharrak beharrezkoak ditugu; eta suertedunak gara, ikusiz Pirinioetan zer nolako aberastasuna dugun”, dio Blancok. Urte luzeetan basoa lan esparru eta lan tresna duen Teletxea basozainak ere ondoak dio, pentsakor: “Oihanak zaindu behar ditugu. Azkenean hau da galdera: Nolako oihanak nahi ditugu gure umeentzat? Agintariek uste dute natura erabat menperatu dezaketela, baina ez da egia. Uste dute etengabe eman dezakeela oihanak, baina guk, basoetan gaudela, badakigu duena bakarrik eman dezakeela, basoa ez dela mugagabea. Eredu industrial hauekin bukatu behar dugu”. ●

Mijo Lizarzaburu

“Maitatu zure burua” leloa sistemaren tranpa da

“Hizketaldi potoloa: lodientzat, lodifobiaren kontra eta lodien alde” zioen kartelak erakarrita bete da Zumaiako Torreberri gaztetxea gabonak igaro osteko bigarren ostiralean. Ez da ohikoa izaten entzuleak hain modu zuzenean sailkatzea, ezta loditasunaz halako erraztasunarekin hitz egiten duen hizlaria topatzea ere. Mijo Lizarzaburu da bera, eta herriz herri dabil loditasunaren auzia politikoa dela azaltzen. Hitzaldiaz gozatzea litzake egokiena, baina besterik ezean hona zertzelada bat.

 MIREN OSA GALDONA  DANI BLANCO

Zertxobait entzuten bada ere, oraindik badirudi ez dela gizartean errotu, baina zuk argi diozu: “Loditasuna politikoa da”. Zergatik? Ezkerreko matxismoa indartzen ari den garaiotan, badirudi politikoa den bakarra kapitalismoa dela, eta beste borroka guztiak, antiarrazismoa eta feminismoa kasu, kapitalismoarekiko azpiratuta agertzen dira. Azpiratze horrek lortzen duen gauza bakarra da langile klasearen homogenizazioa indartzea. Homogenizazio hori apurtu behar da, ez badugu nahi ezkerreko mugimenduen kontrola ezkerreko gizon zurien esku geratzea. Beraz, bai, gizentasuna politikoa da. Gizartearen gehiengoaren ikuskerak ezartzen du zein den gorputz zuzena edo norma, patriarkatuaren, kapitalismoaren eta

arrazakeriaren mesedetan: gorputzak, beste gauza askoren artean, heterosexuala eta zuria izan behar du, baita argala, ederra eta funtzionala ere. Hor sartzen da lodi-aktibismoa; gorputz horien normaltasuna apurtuz, gure gorputzetatik identitate antipatriarkal eta antikapitalista eratzeko, gorputz gaixo, itsusi eta ez produktibotik. Magda Piñeirok *tripartito gordofóbico* deitu dion osasun, moral eta estetika lodifobia borrokatuz.

Norbere burua maitatu behar dela dioten mezuak etengabe iristen zaizkigun honetan, aipatu duzu ia ezinezkoa dela gizona izan ezker. Non egiten dute talka bi ideiek?

XXI. mendean gaude, mugikorraren eta irudiaren garaian; selfiaren inperioan. Testuinguru horretan gorputz lodia gorputz okerra da: argaltasun proiektuan porrot egin duen gorputza da. Hau da, “maitatu zure burua” konponbide gisa erakustea sistemaren tranpa da. Nola maitatuko duzu zure burua eremu mediko, familiar, sexu-afektibo osoak esaten badizu zure gorputza okerra dela? Norbere burua maitatzea garrantzitsua da, dudarik gabe, baina lodientzat derrigorrezkoa da gure gorputza okerra dela dioen mezu hori modu kolektibo eta antolatuan borrokatu eta aldatzea. Sistemari ezin dio norberak bakarrik aurre egin. Ez duzu zorientasuna lortuko *Be yourself, be happy* katilu bat erosituz, antsiolitikoak hartuz eta lanean jarraituz.

Gorputz idealaren bila, dieta amaigabeen amets gaiztoetan bizi ohi dira emakume asko, “ni ez naiz hau, eta X kilo gutxiago ditudanean izango naiz” ideian sakonduta. Zer dago halakoen atzean? “Argalatasunak zorientasuna dakar”. Hori bezalako promesa jasanezinak garatu ditu sistemak. Mirarien pareko die-

tak (galdu 20 kilo 5 minututan), Euskal Herritik oso urruti ekoizten diren jantziak hemengoak baino osasuntsuagoak direla sinestaraztea, ingelesez agertzen zaizkigun kirolak (*Crossfit, bodybuilding, fitness cardio*). Lodiak disforia antzeko bat sortzen digute: gure buruan atzerritar sentitzen gara eta joera dugu gorputz lodiarekin identifikatu beharrean, gure burua etorkizuneko gorputz argal idealarekin lotzeko. Etorkizun argalaren ideia horrek gure orainaldi osoa determinatzen du. Orain kirola egin eta garbi jaten badut, pozik nago etorkizuneko niaren bidean ondo noalako, kontrako bidea hartuz gero, ordea, errua sentituko dut. Etorkizuneko perfekzio hori, noski, ez da eskuragarria, baina bizi osoa emango dugu hori eskuratu nahian. Zergatik? Kontua ez delako argaltasuna, gure gorputzen gaineko kontrol soziala baizik. Merkantzia ez da argaltasuna, hori bigarren mailan geratzen da. Sortzen ari direna da emakumeak menperatzeko borrontea.

Heteropatriarkatuak emakumeen gorputzen gaineko kontrola ezarria du, eta sistema kapitalistak ere jakin du lekua egiten lodien artean: XXL emakumeak “normaltasunez” erakutsiz hedabideetan, publizitatean, besteak beste.

Kontua da kapitalismoak geroz eta gaitasun handiagoa duela produktu zehatzak sortzeko, eta azken urteetan aukera bat ikusi dute gorputz lodietan. Halaber, merkatu horretan sartzen direnak gutxiengo izango dira. Gutxiengo hori “lodi ona” alorrean sartuko da, eta emakume argal batek baino hobeto bete beharko ditu feminitatearen mandatuek: makillajea, depilazioa, arropa liraina, hau da, *curvy*-ak izango dira, ez masa amorfoak besteok bezala. Horren bidez bereizketa egiten da loditasun moten artean: lodi onak vs lodi



txarrak. Onak dira kapitalismoaren beharrik asetzen jarraituko dutenak. Ez dute araua apurtuko, zabaldu baizik. Norma zabaltzeak nolabaiteko pribilegio indibiduala ematen die lodiei, sistemaren parte sentiarazten baititu. “Zu salbatu zaitezke lodia izan arren” da promesa berria. Baina helburua ezin da izan talde hegemonikoaren parte izatea, hegemonia bera sortzen duen araua apurtzea baizik.

“Lodi-aktibismoa” aldarrikatu duzu egoera iraultzeko: historikoki irainak izan diren esanak birjabetu eta gizen bezala identifikatu. Boteretze berri baten aurrean gaude?

Niri beldurra ematen dit hori esateak. Esango nuke desboteretze garaietan gaudela. Hau da, lodifobiak indarra du: eraso zuzenek, osasun arloko, lan eremu, nahiz maila sexu-afektiboko bazterketak, ikusezintasun kulturalak eta autozaintzaren agindua ez betetzeagatik epai moralek indarrean jarraitzen dute eta uste dut gehiago izango direla denborarekin.

Adibide gisa pandemiaren garaia jarriko nuke: guztiok etxean konfinatuta egon ginenean jendea kezkatuago zegoen ez gizentzeaz, eskubideetan eta osasungintzan egin dituzten murrizketez baino. Hau da, sistemak askotariko

mekanismoak aktibatzen ditu lodifobia garai guztietara moldatzeko. Gero eta gehiago indartuko da.

Horren aurrean beharrezkoa da lodi-aktibismo indartsu, kolektibo eta antolatua. Lodi-aktibismoa boteretzea da, baino erresistentzia moduan ulertuta. Hau da, lodifobiarik ez balego, ez litzake lodi-aktibismo izango. Lodi-aktibismoa leku askotan kokatu daiteke, baina nik transfeminismo antikapitalistarekin batera ulertzen dut, ertzeko gorputzen politikak modu bateratuan antolatzea beharrezkoa delako heteropatriarkatu arrazista kapitalista lodifoboari aurre egin nahi badiogu. ●

ATZERRIAN
LURRA GARRATZ

MUTS TEATROA · ARTEDRAMA
zuzendaria AMANCAY GAZTAÑAGA
aktoreak ANDER LIPUS · LAURA PENAGOS
ATZERRIAN.EUS

OTSAILA	APIRILA	MAIATZA
12 Oñati - ESTREINALDIA	10 Aulesti	2 Lezo
19 Andoain	16 Zornotza	5 Iruñea
20 Markina-Xemein	23 Sopela	7 Tolosa
21 Errenteria	25 Villabona	16 Pasaja
26-27-28 Donostia		23 Erandio
MARTXOA		EKAINA
2-3 Bilbo/ Arriaga	9 Eibar	6 Hondarribia
5 Zumaia	12 Bermeo	
6 Gernika-Lumo	13 Berriz	
7 Arrasate	14 Durango	
	19 Zarautz	
	23 Hernani	
	26 Elorrio	
	27 Barakaldo	

OSASUN MENTALERAKO OINARRI TAILERRA

Munstroak maskota bilakatzeko serigrafia tailerra

Ahotsak, haluzinazioak, tristatu eta blokeatuta geratzeko joera, erlazionatzeko arazoak, dutxan edo eskuak garbitzen orduak emateko obsesioa, beren burua zauritzeko pultsioa, etxetik irteteko, ohetik altxatzeko edota eguna antolatzeko ezintasuna... Askotarikoak dira Gasteizko Oinarri tailer okupazionalako erabiltzaileen gaitz eta sufrimenduak. Horiek lantzeko sortu zen tailerra orain hamabost urte, eta abenduan proiektu berritzailea abiatu zuten: serigrafia. Salmentarako material propioa sortzen dute bertan, baina, batez ere, osasun mentala lantzen dute estigmak eta ghettoak saihesten saiatuz.

 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA  OINARRI

Gasteizko Hogar Alavés elkarteak 2005ean sortu zuen tailerra, osasun mentaleko arazo larriak dituzten pertsoneri zuzenduta. Zenbait enpresak eskatzen dizkieten lanak aurrera ateratzen dituzte: piezak muntatu, paketeak egin, jada amaituta dauden produktuak ondo daudela gainbegiratu... Eskuekin lan egin ez arreta edota psikomotrizitatea lantzen dute, baina hori beste erreminta batzuk garatzeko "aitzakia" dela dio bertako langile Aitor Korres Abaituak: "Garrantzitsuen bakoitzaren zailtasunak lantzea da".

Pablo Etxebarriak ia sortu zenetik hartzen du parte Oinarriin. Astelehenetik ostegunera hurbiltzen da Uritiasolo industria guneko pabiloira, egunero bi ordu lan egiteko. "Bakardadeak eta eginbeharrik ez izateak sufrimendua areagotzen didate. Bi ordu horiek on handia egiten

didate. Zailtasun gutxiko lanak dira, giro ona dago, elkarriketan egoten gara, baloratu egiten gaituzte, sozializatu egiten gara. Ez da kristoren pagotxa baina asko laguntzen digu", laburbildu du. Ondoa duen Iñaki Sáenz de Santamariari kostatu egiten zaio hitzez adieraztea. Lantegi batean ezin duela lanik egin dio, baina Oinarriin baietz, eta sorreratik dagoela bertan. "Garrantzitsua da arreta mantentzea, elkarren artean erlazionatzea, batzuetan ez zait erraza erlazionatzea", azaldu digu (Elkarrizketa egin eta aste betera ondoezik sentitu zen Sáenz de Santamaria bat-batean. Ospitalera joan, eta ordu gutxiren buruan hil zen hainbat organok huts egin ostean, elkarteoko erabiltzaile eta langileen saminerako). Cristina Blancok dio blokeatu ordez zergatzen ari zaion adierazten ikasi duela: "Buruan gauza gehiegi ditudanean

irudiak sortzen ditut. Ikusi nuen koadro baten antzerakoa, pertsona bat agertzen zen burua bekokitik zabalik, eta ateratzen zitzaizkion pentsamenduak, objektuak...".

SERIGRAFIA TAILERRA

"Ikusten genuen geroz eta lan gutxiago eta espezializatuagoa heltzen zaigula enpresetatik, eta azkartasuna eskatzen digutela. Gure filosofiarekin talka egiten du horrek", azaldu du Korresek. Exijentzia produktiboa handitzeak pertsona batzuk kanpo uzten zituen, baina Oinarri denentzako balio behar du: "Batzuk produktiboak dira, beste batzuk egingo dituzte bi ordutan bi pieza, baina ohetik altxatu eta honaino etorri dira, sozializatu dira, hitz egin dugu beren sentipenez...". Filosofia horri eusteko nahiak erditu du serigrafia tailerra, elkarteak



XABIER SAGASTA



berak sortu eta sustengatzen duena. Bi urte direla hasi ziren mamitzen, eta abenduaz geroztik dago martxan.

Enpresek emandako lanaren izaera ikusita, tailer okupazionala autonomoagoa izatea nahi dute: batetik, zer-egina eurek sortuz; bestetik, egitekoen erritmoak eta moduak kontrolpean izanez. “Ez dugu bilatzen lan karga handirik, presaz edo itota aritzeko. Gutxieneko bat mantendu nahiko genuke, jendeak etortzeko aukera izan dezan baina beste gauza batzuk lantzeraz”, azaldu du Korresek. Serigrafia horretarako egokia dela dio. “Jende guztiak egiteko moduko lan txiki asko eskatzen ditu prozesuak, eta pertsona askok hartu dezakete parte”. Fernando Pérez eta Begoña Miguélez hasieratik daude serigrafiako lantaldean: “Lehenik isolazioa egiten da, ondoren zigilua, dena garbitu eta tela plantxatu”, azaldu digu lehena; “Estanpatu egin dut, dekapantearekin lehortzen eta plantxatzen ere aritu naiz”, bigarrenak.

Serigrafia tailerra komunikaziorako erreminta ere bada, eta aukera hori baliatu nahi dute Oinarri. “Gure arropa gure mezuekin ateratzen dugu, jendartea interpelatuz eta osasun mentalaren ghettotik irteteko ahalegina eginez”, dio Korresek. “*Explícame eso de rarita*” (Azaldu iezadazu zer den arraro izate hori), dio salgai jarri duten poltsak; “Zure munstroak nire maskotak”, kamisetak. Kamisetaren

irudia ARGIA-ko kolaboratzaile ere baden Xabier Sagasta ilustratzaileak egin du, berriki Nerea Mauleónen diseinu batekin egin dituzte poltsak, eta sortzaileekin elkarlanean jarraitzeko asmoa dute produktuari eta leloei ikusgarritasuna emateko. Webgunea ireki dute (www.oinarri.org), eta Instagramen ere bizi-zizi dabilta.

HASIERA ITXAROPENTSUA

Pozik daude Oinarri proiektuak bi hilabeteotan izan duen harrerarekin. Beren diseinu propioak dezente saldu dira, eta bestelako irudiekin materiala prestatzeko proposamenak ere jaso dituzte –Euskal Udalekuentzako edo Parral taberna-erentzako poltsak, esaterako–.

“Tailer barruan Mertxe, Zuri eta hirurok oraindik pisu handia dugu, baina eskaerak eraman eta eskura emateaz erabiltzaileak arduratzen dira”, dio Korresek bere poz handiena seinatuz. Adibide bat jarri digu: “Jendearekin komunikatzeko zailtasunak dituen pertsona bat entrega batetik etorri zen atzo eta esan zigun, ‘honek behartzen nau komunikatzera eta jatorrago portatzeraz’. Harro azaltzen du Oinarri egiten dugun lana, ospitale psikiatrikoan kontaktu du, bi langilek poltsak eskatu dizkiote... Gauza txiki horiek guretzako handiak dira”.

Entseguak egiten dituzte aurretik, lasai egoteko, jendeari azkar ez hitz egi-

“Gure arropa gure mezuekin ateratzen dugu, jendartea interpelatuz eta osasun mentalaren ghettotik irteteko ahalegina eginez”

Aitor Korres Abaitua

OINARRI TAILERREKO ERABILTZAILEETAKO BATZUK,

serigrafiako materiala soinean: kamisetarekin Manuel Plata eta Tania Bajo, poltsarekin Iñaki Sáenz de Santa Maria.

teko... Entregak binaka egiten dituzte, banaka errotatuz esperientzia izan duen bat egon dadin beti. “Gure burua aurkeztu behar dugu, Oinarriren partez gatozela esan eta ea konforme dauden galdetu”, dio Pérezek. “Niretzat, seinatutako tokira heltzea da zailena, orientatzea”. Miguélezen erronka ezegzagun batekin hitz egitea da. “Batzuetan ataskatu egiten naiz. Burua hutsik geratzen zait, gorputza paralizatuta, eta ez zaizkit hitzak irteten”. Ez zaio horrelakorik gertatu bere lehen entregan.

TAILERRA ARRISKUAN

Oinarriren tailer okupazionalen bizi-raupena arriskuan dago. Ekonomikoki defizitarioa da, eta enpresetatik heltzen diren lanak gero eta desegokiagoak eta urriagoak dira. “Horrela jarraituz gero itxiko da. 30 pertsona daude hemen, asko hamabost urte luzez. Osasun mentalean ez dago tankerako beste proiekturik”, dio kezka Korresek. Serigrafia tailerrak hori saihesteko bultzada bat izan nahi du, lana izateko baliabide propioak sortuz, eta posible bada dirutxo- ren bat aterata. Hori guztia, benetan garrantzizkoak diren gauzak lantzen jarraitzeko: gaitzarekin elkarbizitza adeitsuagoa eraikiz, munstroak maskota bilakatzeko. ●

IKER VILLANUEVA MEDIKUA

“Osakidetzaren lakura etengabe ari da heltzen ur zikina errekatik, ikasle erdaldunak”



Iker Villanueva (1995, Durango) barne medikuntzako mediku egoiliarra da Galdakaoko Ospitalean. Kalitatezko osasun arretaren eta hizkuntzaren arteko lotura sutuki defendatzen du. Ez alferrik *Euskara UPV/EHUko Medikuntza Graduan. Zer ikas dezakegu nazioarteko ereduetatik?* graduondoko ikerketa lana egin berri du. Gauzak argi dauzka: medikuntza ikasleek euskaraz ikasi behar dute eta hori ez da nahikoa: hizkuntza kontzientzia izatea ezinbestekoa da. Lanaldia bukatuta bildu gara berarekin ospitalean, COVID-19ak kutsatutako gaixoak artatu ondoren.

 ONINTZA IRURETA AZKUNE
 HODEI TORRES

Kalitatezko osasun arreta eskaintzeko, hizkuntzaren gaian, unibertsitateek berebiziko rola jokatzen dutela diozu. Hasteko, medikuek ikasketa guztiak euskaraz egiteko aukerarik ez dute. Zein da Euskal Herriko Medikuntza fakultateetako egoera?

Gaur egun Medikuntza gradua, osotasunean, ezin da euskaraz burutu Euskal Herrian. Nik EHU ikasi dut eta hor dago euskarazko eskaintza bakarra. Ikerketa ere, EHU oinarritu dut, baina errealitatea ez da EHU mailakoa. Euskal Herrian beste hiru unibertsitateetan ikas daiteke medikuntza. Nafarroako Unibertsitate Publikoan eta Nafarroako Unibertsitatean, ez batean, ez bestean, ez dago euskarazko eskaintzarik. Aurten, Deustuko Unibertsitatean Medikuntza ikasi ahalko da eta ematen du nolabaiteko euskarazko eskaintza egongo dela. Euskaraz 48 kreditu emango direla esan dute, baina oraindano ez dago zehaztuta zenbatekoa izango den eskaintza mailaz maila. Ikusteke dago.

EHUn, lehenengo zikloko hiru urteak osotasunean egin daitezke euskaraz, baina 4, 5 eta 6. mailak ez. Irakasgunea non dagoen ehunekoak aldakorrek dira. Gasteizen ez dago euskarazko eskaintzarik eta gainerakoetan %50 eta 80 artean dago.

Ipar Euskal Herriko ikasleek Bordelen frantsesez dituzte ikasketak eta

EHUra etortzen saiatzen badira ere, baliokotze kontuengatik oso zaila zaie sartzea.

Hizkuntza gaitasuna bermatzeaz aritu gara, baina ikerketan diozu hori baino gehiago behar dela, hizkuntza kontzientzia behar dela. Zer esan nahi duzu horrekin?

Osasun arloan hizkuntza kontzientzia izatea da pazienteak artatzerakoan, kalitatezko arreta emateko orduan, norbere hizkuntzan aritzeak duen garrantziaz jabetzea. Gure egoerara etorrita, osasun arloan hizkuntza gutxitua erabili nahi bada, ez da nahikoa hizkuntza gaitasuna izatea, beharrezkoa da, baina ez nahikoa. Beste zerbait behar da hitzun aktiboak izateko. Beste zerbait hori hizkuntza kontzientzia da.

Hori nola irakasten da fakultateetan?

Irakatsi daiteke, gai horren inguruan badaude ebidentzia eta corpusa, baina hemen ez da egiten. EHU badago komunikazioa era zabalean lantzeko ikasgai bat, baina hizkuntzaren garrantzia ez da momentu batean ere aipatzen, paradoxikoki. Beste bi ikasgai hautazkotan euskara lantzen da, baina arlo tekniko, alegia terminologia. Ez dute hizkuntza kontzientzia lantzen, non azpimarratuko litzatekeen, adibidez, paziente euskaldunekin euskaraz aritzea zein ga-



rrantzitsua den, eta euskaraz egiten ez badiogu komunikazio harreman horretan zer kalte edo galera egon daitezkeen.

Fakultatean ez dago. Hortik kanpo zerbait egin da: EHU eta UEUren artean prestatutako graduondokoa, jardunaldiak...

Hizkuntzaren inguruko kezka nahiko berria da Euskal Herrian. Azken urteotan gero eta jende gehiago gabilta horrekin lanean, jardunaldiak eta ikerketak ugaltu dira, gero eta ebidentzia handiagoa dago. Graduondoko ikasketak sortzea aurrerapausoa izan da, gaiari seriotasuna eman zaio, baina hurrengo urratsak izan behar du eduki hori graduoko ikasleek ikasketetan txertatzea, guztientzat, euskaldunentzat eta erdaldunentzat. Ondoren, lan esparruan eskaini beharko litzateke.

Hizkuntza kontzientzia euskal adarrean eta erdal adarrean lantzea proposatu duzu, nahiz eta erdal adarrean euskara ez dakiten ikasleak dauden.

Ulertzekoa da hasieran arraroa egitea: erdaldunei zertarako irakatsi hizkuntza kontzientzia? Frogatuta dago hala egitea onuragarria dela. Galesen egin dituzte horri buruzko ikerketak. Erdaldunek hizkuntza kontzientzia bereganatzen badute, kontsultara euskalduna etortzen zaienean profesional euskaldun batengana bideratuko dute, edo era berean, ez dute euskara arrotz sentituko eta ez dute euskararen aurkako jarrera edukiko. Beharbada, etorkizunean euskara ikasteko adoretu daitezke. Baldin badakizu osasun arretan zenbaterainoko garrantzia daukan hizkuntzak, neurriak hartuko dituzu segur aski.

Kanadako eta Galesko ereduak aztertu dituzu. Han hizkuntza kontzientzia lantzen dute ikasleek artean? Eta profesionalekin ere bai?

Kanadan izan ziren aitzindariak eta gaur egun Galesen asko lantzen dute gaia. Unibertsitatetik hasi eta langileen jarduneraino jorratzen dute. Galesko osasun erakunde handiengan, BCUHB Betsi Cadwaladr University Health Board-en, 2017tik aurrera sartu diren langile guztiek harrera programan derrigorrez jaso behar dute hizkuntza kontzientziaren inguruko formakuntza. Imajinatu, Osakidetza bezalako erakunde batera lanera sartzen den edozein profesionalak jasoko luke formakuntza.

Beraz, hemen ez da egiten.

Hemen ez, horregatik aipatu dut Galesko adibidea.

Erabiltzaileek hizkuntza kontzientziarik gabeko profesionalen jarrerak salatu dituzte makina bat aldiz: umeak gaztelaniaz ez dakielako harrituta dagoen pediatra, “nik euskaraz ez dakit, baina zuk gaztelaniaz badakizu, ezta?” esango dizun kardiologoa...

Txipa aldatzea beharrezkoa da. Profesional askok esaten dute lan hori egiteko hizkuntza eskakizuna eskatu dietela. Kezaka ari dira. Euskara zaindu beharreko zerbait moduan ikusi beharrean oztopo edo arrotz moduan ikusten dute. Jende baten jarrera da hori: “Urtetako esperientzia daukat eta ez naute kontratatu, beste hori kontratatu dute, askoz gazteagoa da eta jakintza murrizta du, baina euskara eskakizuna betetzen duelako hartu dute”. Uste dute euskara ez dela behar. Publiko aurrean ari dira lanean, eremu euskaldunean... jakina, konpetentzia garrantzitsua da euskara. Euskaraz dakien horrek zerbitzu hobea emango du. Horrela da!

Lehen aipatu duzu kalitatezko arreta eta hizkuntza lotzea berria dela.

Duela gutxi arte diskurtsoa hizkuntza normalizazioaren eremuan kokatu izan da eta gaia hizkuntza normalizazioa baino askoz zabalagoa da. Osasun arretaren kalitatea dago jokoan. Euskaldunok arreta euskaraz jasotzeko eskubidea daukagu, bai, egia da, baina ez da hori bakarrik. Euskaldunak euskaraz ez badituzte artatzen baliteke gauza batzuk oharkabean pasatzea, ondo ez adieraztea... ez zara ari kalitatezko arreta ematen. Eskubideen diskurtsoa labainkorra izan daiteke, Ciudadanoseko batek esan dezake profesionalak ere eskubidea duela zein hizkuntzatan lan egin nahi duen aukeratzeko.

Nazioartean ere gai hau landu gabea da?

Bai. Aitzindariak herrialde anglosaxoiak izan ziren, batez ere AEBak. Oraintsu hasi da kezka, XX. mende hasieran; etorkinen hizkuntza eskubideei eta haiekin komunikatzeko zituzten mugei tiraka. Ondoren hainbat herrialdetara zabaldu zen kezka, eta hizkuntza gutxituen eremura heldu zen. Norabide horretan landu dute Kanadan, Galesen eta Australian aborigenekin.

Medikuntza fakultatera jauzi egingo dugu. Eredu hirueleduna proposatzen duzu. Horrek

bermatuko lituzke mediku euskaldunak?

Gaur egun ikasleen %40 inguruk aukeratzen du euskarazko adarra. Beraz, esan genezake ikasleen erdiak baino gehiagok euskarazko ikasgai bakarra jaso barik bukatzen duela karrera EHUn. Horri buelta bat eman behar zaio eta bi aukera egon daitezke: euskarazko adarra baino ez mantentzea eta gaztelaniazkoa bertan behera uztea edo eredu hirueleduneko karrera antolatzea. Nik azken hau proposatzen dut. Euskara eta gaztelania dira kalean jendearen gehiengoak hitz egiten dituen hizkuntzak eta medikuak jakin behar du bi hizkuntza horietan ondo moldatzen, terminologia zientifikoa ere bai. Eta ingelesa zergatik? Hizkuntza zientifikoa da, argitalpen gehienek hizkuntza da, eta bestalde, gero eta etorkin gehiago artatzen dugu eta ingelesa erabili ohi dugu. Espainiako Estatuan badaude horrelako adibideak. Gironako Unibertsitatean, Medikuntzan, eredu hirueleduna dute. Egia da katalana eta gaztelania antzeko hizkuntzak direla, baina esan nahi dudana da legalki posible dela.

Erreak ur zikina dakar eta beti lakua garbitzen. Azaldu iezaguzu ikerketan erabili duzun metafora.

Ez dauka ez hanka ez bururik. Ikasle erdaldunak formatzen dira eta Osakidetza sartzan direnean euskalduntzeko aukera eskainiko zaie, lan-utzialdi moduko bat. Hori oso garestia da. Lakua, hau da, Osakidetza, zikin dago, eta lakua

garbitzen saiatzen ari dira, baina errekatik etengabe ari da heltzen ur zikina, alegia, ikasle erdaldunak. Horrela nekez lortuko da lakua garbitzea. Aldiz, aukera itzela dago etorkizuneko langile euskaldunak sortzeko, hizkuntza gaitasuna eta kontzientzia izango dituztenak.

“Ikasleen erdiak baino gehiagok euskarazko ikasgai bakarra jaso barik bukatzen du Medikuntza EHU-n”



Kalitatezko arreta bermatzeko beste elementu ezinbestekotzat duzu eskaintza aktiboa. Zer esan nahi du horrek? Euskal Herrian ari al dira eskaintza aktiboa egiten?

Pazienteari bere hizkuntzan osasun arreta eskaintzea da, berak eskatu gabe. Kontzeptu hau batez ere Kanadan landu da, baina hemengo adibidea ematearren, aipatuko nituzke lehen arreta eta arreta espezializatuaren arteko euskarazko zirkuituak. Lehen mailako arretan detektatzen bada paziente euskalduna dela, arreta espezializatura bideratutakoan, adibidez kardiologoarengana, profesional hori euskalduna izango da. Pazienteak ez du eskatu. Arrasaten eta Gasteizen horrelako zirkuituak osatu



dituzte eta Galdakaon horretan dabil-tza. Esperientzia pilotuak dira, probaldi nahiko onak.

Eskaintza aktiboa anekdotikoa da. Bestalde, erabiltzaileoi zein hizkuntzatan artatuak izan nahi genuen galdetu ziguten eta euskaldun askok aukeratu genuen euskara. Ez du balio, berdin-berdin egokitzen zaigu mediku erdalduna.

Hala da, beste barik, ez du funtzionatzen. Gure e-ak ere ez du beti funtzionatzen. [Medikuaren uniforme zurian, paparrean daraman e letra erakutsi digu. Ikur horrek esan nahi du profesional horrek euskaraz badakiela]. Medikuegoiliar garenok makina batetik ateratzen ditugu mantalak. Ezin dugu aukeratu e ikurra duena edo gabekoa, makinak ematen duena hartu behar dugu. Medikue espezialistek bai, haiek euren uniformeak dauzkate eta kontsultaren atean ere jar dezakete e ikurra. Hala ere, korridoreetan e piloa ikusiko duzu eta askok ez dakite euskaraz. Ez da tresna eraginkorra, zeren erabiltzaileek ikurra ikusi eta uste dute euskaraz badakitela, euskaraz egiten hasten dira eta profesionalak ez daki.

Euskal Herrirako ikerketa zentro erreferente baten beharra azpimarratu duzu. Zer litzateke zentro hori? Zertarako?

Lehen esan dut osasuna eta hizkuntza uztartzen dituen ikerketa lerroa nahiko berria dela. Azken urteotan oparotasun moduko bat izan da, gero eta ikertzaila gehiago ari dira horretan, gero eta

“Profesionalak baldin badaki osasun arretan zenbaterainoko garrantzia daukan hizkuntzak, neurriak hartuko ditu segur aski”



ebidentzia handiagoa dago. Egon bada go testuinguru egoki bat era horretako ikerketa zentro handi bat eratzeko. Galesko LLAIS edo Kanadako Monton ikerketa zentroen antzeko zerbaite izango litzateke. Horiek unibertitateetan daude eta osasun erakundeekin elkarlanean aritzen dira.

Zer ikertu daiteke horrelako zentro batean? Euskaldunen gogobetetze maila zelakoa den; zelako eragina daukan gaitasun kronikoen kontrolean euskaraz edo gaztelaniaz egiteak; nazioartean garatutako diagnostikorako test gehienak ingelesez daude eta horiek euskarara egokitu behar dira; eremu elebidunetan osasun arloan ikerketa klinikoak egiteko praktika onen gida bat egin daiteke, Kanadan badute halako gida bat; eta abar.

Hemen ikerketa zentroa abiatzeko hazia ereinda dagoela uste duzu, beraz.

Eredu hirueleduna martxan jartzeko eta horrelako ikerketa zentro bat martxan jartzeko inbertsioa behar da eta horretarako borondate politikoa. Jakina, sektore batzuen aldetik erresistentziak egongo lirateke hiru eleko eredura aldatzeko, adibidez. Kontua da erresistentzia horiek zelana gaintzen diren, euskaldunok zenbaterainoko indarra daukagun botere harreman horretan alde batera edo bestera mugitzeko balantza. Horrelako aldaketen beharra zientifikoki ondo argudiatuta dago, eta ez hizkuntza eskubi-deetan oinarrituta, baizik eta kalitatezko osasun arreta eskaintzeari begira. ●



Euskararen Etxea

Agoitz plaza 1 48015 Bilbo, Bizkaia.
Tel.: 94 402 80 81

E-posta: info@euskararenetxea.eu
Metroa: San Ignazio > Lekeitio Irteera.



Munduan badira kirats eta lurrinak

Amildu zen zabor jauzia. Azken egunera arte dena jan duen zabortegia, bi langile irensteraino. Urtebete iragan da eta Zaldibarren oraindik ustel usaina dago. Portu gris batean kokatzen den krimenak ere ez du hats hoberik. Mafien kiratsak. Eta gorpuzkirik gabeko hilketa ustela? Arrosari usain txarra dario, iparretik hegoraino. Baina dena ez da ustel eta badira lurrin goxoak ere, mugak urruntzen gaituenok elkarrengana gerturatzeko zubi-lana egiten duten perfume sotilak. Euskararena bera, zein ederra den; eta berau ahalik eta gehien hedatzeko egiten den lanak ere aroma gozoa dakar.

Ustelari kiratsa dariola gogorarazten digutenei, ustelkeriarekin jolas eginez pantailara errealitatetik asko duen historia gordinak ekartzen dizkigutenei eta inguruan dabilen hatsaren gainetik lurrina usaintzeko aukera eman digutenei aurtengo sariak.

IKUS-ENTZUNEZKOA. “HONDAR AHOAK”

Inflexio-puntua ezarri du euskarazko telesailen historian. Lehen musika doinu eta irudietatik ikus-entzulea sarean harrapatzen du. Portua, arrantzaleak, izotza, droga, mafia usain sarkorra... nor den nor eta zer egingo duen ongi asmatu ezin den panoraman. Desagertu bat, psikologoaren terapia egiten duen Ertzaintzaren detektibea, herrikoa den polizia gazte eta misterioitsua, trapitxero txikiak eta handiak. Mendebaldeko hamaika portutan gertatutakoak, orain gurean fikzio bidez, baina errealitatetik gertu ere bai, oso gertu.

Thriller on baterako osagaiak bazeuzkaten eta asmatu dute, “Almandoz Kolorea”-rekin ukitu propioa emanez. Hala azaldu du egileak: “Niretzat arrakasta da eduki ditugun baldintzetan egin duguna egin izana. Lantalde teknikoak eta artistikoak izugarritzko lana egin du urtebetean. Gu beti saiatzen gara gure ukitua ematen eta zerbait berezia egiten. Genituen baldintzekin ezin ginen lehiatu munduan egiten diren thrillerrekin (ez genuen baliabiderik pertsekuziorik egiteko, ez geneukan espezialistarik zubitik behera botatzeko...). Beraz,

pentsatzen duzuna da: behintzat kontu dezagun kontatu nahi duguna gure modura. Ez dauka zentzurik beste baten kopia egiteak eta, gainera, medio gutxiagorekin”.

Nobela beltz amerikar zein eskandinaviarrari lotutako telesailak aipatu dituzte erreferentzia modura. Baita euskal nobela beltz “garaikide interesgarri eta gaiztoa” ere.

“Ondarroak soziologikoki duen identitatea oso berezia da, estetikoki ere erakargarria zitzaien proiektu honetarako”, dio Marian Fernandez ekoizleak, eta gustura daude izandako harrearekin. Euskal sortzaileentzat duintasuna aldarrikatzea ahaztu gabe.

KANPAINA. ZALDIBAR ARGITU

Bost hitzekin gaur egungo mundua zalantzan jarri eta milaka pertsonak babesteko moduko programa politikoa laburbiltzeko gaitasuna erakutsi dute: *Lan-gileak, osasuna, erantzukizunak. Zaldibar Argitu*.

Herritarrek behetik sortutako mugimendu honek inurri lana egin du urtebetez, zabortegi hartan gertatutakoa eta bertan geratu ziren Joaquin Beltran eta

Alberto Sololuze ahanzturan eror ez daitezzen. “Gai honek hemen egin du eztanda baina hainbat eremuri eragiten dio. Bezero-sare horiek ez daude Zaldibarren bakarrik”, “zer gizarte eredu sustatzen ari garen azaltzen duen abisu bat izan da, zer negozio eredu eta euskal oasi honen zuloan zer gordetzen den ustezko aberastasunaren azpian eta kalte hori norentzat den azaldu duena”, diote Janire Lazkano eta Jokin Bergara taldekideek.

“Pandemia bihurtu da gai bakarra komunikabideetan eta ez digu mesederik egin. Baina krisiak ekarri duen gauzetako bat bada sektore estrategikoen kudeaketa auzitan jartzea eta publikoaren alde egitea (osasunean, hezkuntzan...). Horrek badu lotura bat pandemian egon diren borroekin: bizitzak erdigunean jarri, zaintzak eta abar, eta gure borrokarekin”, azpimarratu du Gaizka Zabartek.

2021 honetan, bai epaitegietan, baita Europan ere, lanean jarraituko dute.

Beti komunikazioaren esparrua mimo handiarekin landuz, izan kantua, izan ikurra, izan irakurketak, izan mobilizazio ereduak... zabaltasuna batzea lortu dute beren ideiei ukorik egin gabe.

IRRATIA. “ZUBIAK”

Lau urtez entzun ahal izan dugu irratsaioa. Astero zubiak eraikitzen aritu dira. Euskal Herria alderik alde zeharkatu dute. 360 irratsaio eta bakoitzean gutxienez lau bat gonbidatu. Herriak, jendeak, berriak eta egitasmoak ezaizteko aukera eman dute.

“Zubiak eraiki nahi izan ditugu, berez, zubi batez bereizi nahi dituzten lurren artean. Zazpi lurraldeko Euskal Herri honen barruan, askotan, barne mugak, ez-ezagutzatik eraikitako mugak izaten ditugu, aurre-juzkuak, eta begirada zabaltzeko programa izatea zuen helburu saioak”, adierazi du Alaia Martin saioaren gidariak –lehenbiziko bi urteetan Artzen Letona zuberotarra aritu zen berarekin saioan–; eta hala segi dio Pantxis Bidart kideak: “Nahiz

GOTIK BEHERA:

Koldo Almandoz zuzendariak eta Marian Fernandez ekoizleak jaso dute saria.

Gaizka Zabarte, Jokin Bergara eta Janire Lazkano Zaldibar Argitu mugimenduko kideak.

Pantxis Bidarte, Alaia Martin eta Lohizune Amatria irratsaioaren egileak.



IKUS-ENTZUNEZKOA. “HONDAR AHOAK”



KANPAINA. ZALDIBAR ARGITU



IRRATIA. “ZUBIAK”



INTERNET. EUSKAL ENCONDINGS.

eta guk muga egoterik nahi ez, hor da eta pandemia honek erakutsi digu lehen begirada batean irekita dagoen muga hori fite hets dezaketela. Guri dagokigu muga horien gainetik zubiak eta harremanak eraikitzea”.

Saio bakoitza goxo harilkatu dute, astero saioari hitz bat atxiki diote eta jolas egin dute hitzarekin, poesia. 2020ko uztaillean ‘Azkena’ izena zuen saioa emititu zuten. Hain zuzen ere, azkena izan baitzen. Aurkezleek gonbidatu gaituzte saioaren lorratzari segi eta zubiak eraikitzen jarraitzera. “Muga horrek harremanak ere bereizten ditu eta errealtate, hezkuntza-, komunikatze-moduak mugatzen ditu; eta gabezia horiek orekatzeko elkarlan gehiagoren, zubi gehiagoren beharra badela uste dugu, komunikabideetan eta beste arlo askotan”, azaldu dute.

Zubiak saioa Alaia Martinek eta Pantxis Bidartek gidatu dute. Lohizune Amatria aritu da Nafarroatik kolaborazio lanak egiten. Euskadi Irratiak eta France Bleu-k elkarlanean egindako saioa izan da eta Euskalerrria Irratiak haiekin kolaborazio lanak egin ditu.

INTERNET. EUSKAL ENCONDINGS

Hizkuntza menostu orok ikusgarri izan behar du biziberritzeko. Esparru guztietara zabaldua. Eta XXI. mende hone-tan gu guztion bizitzan eragin zuzena duen eremu garrantzitsurik bada, hori ikus-entzunezkoen mundua da. Baina, zer egin dezakegu euskaldunok erdara hutsean mintzo diren NetFlix, Amazon, Filmin, HBO erraldoiek edo Youtubeko eta telebistako milaka kateek osatutako armadaren parean?

Bada, hasteko, euskaraz sortzen diren film, telesail, marrazki bizidun eta ikus-entzunezko oro sustatu eta munduko euskal komunitate guztientzat eskuragarri jarri. Horretan dihardu aurtengo sarituak 2003tik, auzolanean, euskarazko ikus-entzunezkoen edukiak komunitatean eta modu irekian sarean zabalduz. Hasieran *Dragoi Bola*-ko atalak denen eskura jartzeko asmo soila zena, 18 urteren ostean, euskarazko ikus-entzunezkoen biltegiak handiena bilakatu da. 1.500 film inguru dira ikusgai webgunean, mota askotako lan askoren artean. Denak euskaraz, “herritik herriarentzat”, diote.

7.000 erabiltzailetik gora dituen foroaren arduradunek hala azalduta: “Ez du zentzu handirik hizkuntza zapaldu baten berreskurapena bultzatzen duzula esan eta gero euskarazko edukiei copyright-a jartzeak”.

Euskara indartzeko politiken apustuaren beharra aldarrikatu dute: “Gustatuko litzaiguke ikustea Gobernuak diruz laguntzen euskara sustatzeko horrelako proiektuak. Ez dago interesik. EITB sortu zen euskara sustatzeko, baina ikusten dugu erdarazko kanalean inbertitzen dela gehien. Akaso ETB2 ere beharrezkoa izango da, baina hala balitz ere, orduan euskara gehiago sartu beharko da kate horretan”.

PRENTSA. JON ALONSO, “NAPARRA. KASU IREKIA”

Asko idatzi da prentsan José Miguel Etxebarria *Naparra*-ri buruz, baina ez behar beste. 2020an 40 urte egin zuen desagertu zenetik. Lau hamarkadatan denetariko uneak izan dira *Naparra* auzian. Hedabide batzuek maiz jarraitu dute, gehienek eta handienek nekez. Jon Alonso sariaren irabazleak dioen gisa,

PRENTSA. JON ALONSO,
"NAPARRA. KASU IREKIA".



"Naparra kasua, bahitu eta hil zuten militante baten kasua ez ezik, gupidagabe torturatu, jipoitu, hankapetu eta zigortu duten haren familiaren kasua ere badelako".

Desagertuaren senideak ditu gogoan idazleak, Naparra bera bezainbeste. Umetako jolaskidea. "Familiak erakutsitako indarra" goraiatzeko du, "ez diote sekula beraien ahaidea bilatzeari utzi".

Ikerketa lana da. Gorpuzkirik ez dagoen bitartean irekita jarraituko du kasuak eta ikerketa-lan honekin Naparra non dagoen aurkitzea lortu ez bada ere, akaso hurrengo pausoren baterako lagungarri izango da.

Memoria lana ere bada. 1980ko hamarkada hartan irakurlea ondo kokatzen duena. Naparra auzi korapilatsuaren harian ongi eta argi eramanez. "Nire belaunaldiarentzat oso ezaguna da kasua, baina liburuak eta laster plazaratuko den dokumentalagunduko du memoria kolektiboan aletxoa jartzen, ondorengo belaunaldiek Naparraren kasua zer den ezagutzen", azaldu du Alonsok.

Ez da prentsa lana, baina kazetaritza idatzia da, ikerketa kazetaritza. Saritzeko modukoa.

Istantaren xarma mantendu nahian

U surbilgo Atxega Jauregia jattetxea. Barrura sartu aurreko solasaldia. Aspaldian ikusi gabekoan besarkada eta musuak. Familia argazkia. Bazkari goxoa. Urteak eman duenaren errebasoa bideoan jasoa. Aurrez aurreko sari-banaketa. Begiez gain hortz, mihi, ezpain eta sudurrez betetako aurpegiak. Falta dugunean baloratzen omen dugu genuena. 2021eko Argia Sariak. 32. edizioa. Aurten pantailaren aurrean ahalegindu naiz hori dena sentitzen, eta benetako Argia Sarietako zirrara hori falta izan bazait ere, ekitaldirako prestatutako ikus-entzunezkoekin eta elkarrizketekin lortu dute momentura gerturaztea eta hurrengo eguneko saria nork jasoko duen jakin-mina piztea.

Formatu desberdina asmatu behar izan dute. Elkarrizketak egin, bideoz grabatu eta ARGIAko hainbat kidek jarritako off ahotsak eta sarituen hitzak bilduz osatutako bideo bana eskaini dute egunero, astelehenetik ostiralera. Bost egun, bost sari.

Istantaren xarma bilatzen ahalegindu dira, aurrez aurrekoak duen

indarra lortzen, errealtasunetik eta bat-batekotik ukitua izan dezan. Ez dira estudio batean grabatutako elkarrizketak. Zaindu dute eszenatokia eta eman diote saritu bakoitzari bereago duen lekua. Aurrez aurrekoan egin ezin zen elkarrizketa egiteko balio izan du aurtengo formulak eta Atxega Jauregian, saria eskuetan, botatzen dituzten sei hitzen artean geratzen diren hamaika hari-punta hobeto josteko aukera eman du.

Aurreko edizio guztietan, sari-banaketa bukatu ondoren, garaikurra jasotzera gerturatu diren guztiei argazkia atera izan zaie elkarrekin; atzean, ondo ikusteko moduan, urte horretan Argia Sariak ekitaldia babestu duten guztien logoak dituztela. Aurten hori ere ez. Logorik ez, baina babesletza batzuk bai. Gipuzkoako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Saila, Emakunde, Euskaltel, Laboral Kutxa, Kutxabank eta Mondragon korporazioa.

Eta logorik ez duzuen baina babesletzarik fidelena ematen diguzuen ARGIA jende guztioi, eskerririk asko.



Hankak lurrean, baina ez geldirik

Argia Sari guztien atzean pertsonak daude. Jendea saritzen dugu, eta jenderik gabe banatu behar izan ditugu aurtengo Argia Sariak. 2020. urtea eta 2021eko hasiera ez dira errazak izan. Ezta ARGIA-rentzat eta ARGIAkoontzat ere. Txinan agertu zen birus hartaz lehen aipamenak egiten zirenean etxeko mesfidatienek gure arteko elkarrizketetan egiten zituzten aurreikuspenik ilunenak ere motz utzi zituen dagoeneko ezagun baina oraindik ere ez-ezagutzatik asko duen pandemiak. Mundua hankaz gora eta ARGIA zangoak lurrean eduki nahirik. Ondo azalduta dago urtearen balantzea Lander Arbelaitzek pasa den azaroaren 29ko zenbakian idatzitako *Hilik baikalde, bizirik gaudela ez badugu oihukatzen* erreportajearen.

Aldatu behar izan ditugu lan egiteko moduak, ARGIA osatzen dugun guztion osasuna bermatu ahal izateko. Guztiona. Erredakzioan lan egiten duenetik hasi eta inprentatik pasaz, banatzailetaraino. Erabaki genuen etxetik lan

egitea. Hautatu genuen hiru astez al-dizkaririk ez egitea eta modu digitalean eskaintzea ahalik eta informazio zabalena.

Kazetaritza independente eta kalitatezko hori bermatzeko aukera badugu, denon artean ARGIA ekonomikoki bideragarri egiten asmatzen dugulako da. Durangoko Azokaren hutsuneak moztu du diru-iturri bat, eten dira aurrez aurreko urteroko egonaldiak, harremanak, eman eta hartuak. Proiekturen batean ibili denak ondo daki zein nekeza den proiektuaren alde dirua jartzeko prest dagoen jendea topatzea. Eta krisi ekonomiko batek ez du bidea leuntzen. Baina lantaldeko kide batek zioen, biziraupenera ohitutako espeziea dela ARGIA, diru irabazi asmorik gabe, urtez urte biziraupena bermatzea lehentasun duena. Behin urtea salbatuta, gero geroakoak.

Sendo harrapatu du ARGIA mundua dardarka jarri duen lurrikarak. Azken urteetan izan den generazio aldaketak bultzada eman dio eta martxan jarritako

lan egiteko moldeek ere taldea egiteko balio izan dutela dirudi. Pentsatzeko, birformulatzeko, moldatzeko eta aldatzeko artea eskuratu dute langileek; 1980ko hamarkadatik berena duten enpresaren gidari. Erronkei erantzuna emateko prest. Aurrean suertatzen den harri-kozkor honekin zer egin? Hasteko, taldean erantzun. Eta gero, eskura ditugun baliabideen arabera neurriak hartu: batzuetan harria mugitu arte bultzada, beste batzuetan gainetik salto egin, eta akaso, maniobra bihurriegia bada, inguratu eta aurrera egin. Baina aurrera egin.

Urte gogorra izan da guztiontzat, datorrenak zein norabide hartuko duen ondo ez dakigun bitartean. Dakiguna da ARGIA komunitatearen beharra duela. Sekula baino handiagoa, harremanak mozteko eskatzen ari zaizkigun garaio-tan. ARGIAk beste urtebetez biziraungo badu (eta hori du asmoa) bere sarearen babesarekin izango da. Independentzia-tik. Euskaratik. Ikuspegi kritikotik. Ezkerretik. ARGIAren magalean biltzen garen guztion bultzadarekin. ●

ARGIA Sariak 2021

BABESLEAK





Askatasuna txirikordatan



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Granadako Erresuma Berria, XVI. mendearen amaiera. Espainiako koroarentzat ihes egindako esklaboak, zimarroiak, geroz eta arazo handiagoa ziren Karibe aldeko lurretan. Afrikar esklaboek ihes egitean nagusiek eskulana galtzen zuten; hasieran, aleka-aleka. Baina zimarroiak geroz eta hobeto antolatu ziren. *Palenque* edo *quilombo* izeneko komunitateetan bildu ziren; etxaldeak eta plantazioak erasotzen zituzten, esklaboak askatzeko; eraso horietan hornigaiak lapurtzen zituzten; kontrabandoan aritzen ziren piratekin nahiz merkatarri europarrek... Espainiarrak saiatu ziren hainbat espedizioen bidez *palenqueak* topatu eta suntsitzen, baina zimarroiak nahiz oraindik esklabo zirenek askoz hobeto ezagutzen zituzten inguruko oihan trinkoa eta erliebe malkartsua. Horregatik, behin baino gehiagotan espainiarrek zimarroiarekin negoziatu behar izan zuten. Zimarroiak hobeto moldatzen ziren inguru haietan, besteak beste, kartografia metodo berezi bat garatu zutelako, denen bistan, baina ezkutuan.

Granada Berriko esklaboak ez ziren bakarrak izan Afrikan, aske zirenean, zituzten ohiturei ahal zen neurrian eusten. Beste leku batzuetan ere ilea txirikorda bihurrietan biltzen jarraitu zuten, nola edo hala identitateari eutsi nahian. Bai-




Karibe aldeko esklabu afrikarrek ilean txirikordak egiteko ohiturari eutsi zioten eta txirikorda haiek askatasuna lortzeko bidea eman zieten askori.

na Karibeko esklabo horiek buruko marrazki haiei beste erabilera bat eman zieten. Emakumeek egiten zizkieten elkarri ilekordak eta, gainera, emakumezko esklaboei gizonezkoei baino askatasun handixeagoa uzten zieten plantazioen inguruetan ibiltzeko, itxuraz arrisku gutxiago zutelako. Hala, etxaldetik urruntzeko aukera zutenean, erliebeari erreparatzen zioten, errekei, landarediari,



edozein motatako mugarriri... eta, ikusitakoa eta ibilitakoa gogoan hartuta, elementu horiek txirikordetan marrazten zizkieten elkarri, ugazaben susmorrik piztu gabe, iheslarientzako mapa bat osatuz.

Gainera, diotenez, txirikordak egitean plantaziotik lapurtutako haziak gordezten zituzten ile artean, gero *palenque* askeetan ereiteko. ●



Mosul digitalki berregin dute

2014 eta 2017 artean, Mosul (Irak) Estatu Islamiarraren hiriburu izan zen, eta erregimenaren nahiz nazioarteko tropen erasoen ondorioz, 2.500 urteko ondare historiko eta artistikoa suntsituta geratu zen. Asiriako hiriburu Nimrud eta Ninive erraustuta geratu ziren, baita Erdi Aroko Al-Nuri meskita ere, besteak

beste. Orain, Google Arts & Culture plataformak, *The Art & Soul of Mosul* izeneko ekimenaren bidez, ondare hori digitalki berregin du eta hiru dimentsiotako ereduak eskaintzen ditu galdutako ondarea bisitatzeko. Besteak beste Ishtareko Tenpluko lehoi zaindari ezagunetako bat berregin dute proiektu honetan. ●

BARATXURIAK BAI ALA BAI: BURUA EZ BADA HOSTOA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Baratxurie urte guztiko janarie" esaera jaso zuen Gotzon Garate Goiartzun zenak Unanuko Algarteko Etxean. Baratxuria edo berakatza edo beratxa edo betatxa edo *Allium sativum*. Gure gazte denboran baratxuriak burua egin eta, lehortutakoan, atalez atal jaten zen. Ez zen, gure inguruan behinik behin, baratxuri landare berdea, freskotan jateko ohiturarik. Ezta berakatza-aieta ere, hau da, umotu gabeko berakatza atala, edo gure etxean esaten zaion bezala baratxuri alea ere. Beti lehortutakoa, baratxuri zopa edo pilpilada prestatzeko erabiltzen dena bezalakoa. Iruñeko Sanferminak izaten ziren baratxuri uzta berriaren agertokia; garaitsu horretan azaltzen ziren urte osoan gure platerak gozatuko zituzten baratxuri-buruak kordatan txirikordatuta edo adastuta. Korda edo sorta, soka, hari, txorta, txirikorda, zarta, oko, sarta, adats, borka, morka, porka, borkila, mulko, mordo, golko, mortxokada, adalco edo mustrika. Jai haietatik bueltan etortzen zirenak lepoan hartu eta soinarren alde banatara baratxuri sorta zutelata etxeratzea ohikoa zen.

Euskal Herri hezean baratxuria gaizki burutzen da. Oso baratze bakanetan ikusiko dituzu tajuzko buruak. Lehorzalea da, lur zakar, harritsu eta elkorrak



maite ditu; ez behintzat ongarriz lepo dauden lur emankor jori gizenak. Mediterraneoan isurialdeko lurretan oparotako etortzen da.

Iparralderako isurian hezetasuna nagusi da eta lurrari ongarririk gehiago emateko ohitura dago. Bi baldintza horiek dakarte gaitzak etxean bezala eta aldiz baratxuria arrotz eta ahul sentitzea. Ongarri putzuak landareari hazteko aukera ematen dio, azkarregi hazteko, eta horrek hostoak erkinik eta kadenik luzatzea dakar, hezetasunak puztu eta sustatutako perretxikoei sortutako gaitzei aurre egiteko ezgauza.

Baratxuriak nozitzen duen gaitz arruntena herdoila da, berea duen herdoil jakin bat: *Puccinia allii*. *Allii* horrek dio baratxuriarena dela (*Allium sativum*).

Hostoetan orban borobil arre-laranja-gorriak sortzen ditu, eta aise ugaldtu eta hedatzen da. Hostoak iartu egingo dira, eta burua osatu ezinik eskas delarik helduko da. Baratxuri zuriari moreari baino errazago erasotzen dio herdoilak.

Baratxuriak hotza maite duela ere esaten da. Agi danean, hotz horrek erasten dizkio udaberrian burua egiteko grina, baita dastan hartzen duen mina. Esan ohi da min horrek babesten duela gaitz eta izurriteengandik. Beraz, hezetasunak gutxitxo eta Euskal Herri atlantiarrean izan ohi dugun negu pata-lak ere ez du batere laguntzen.

Eta zer egin? Ba baratxuria freskotarako, berdetan hostajea jateko jarri. Burua osorik landatu eta atal bakoitzak bere landaretxo sortuko du, sorta polita emanez. Oraintxe da landatzeko sasoi. Besterik ezean, loreontzian ere ederki etorriko zaizu. Burua bezala ez da urte osoko janaria izango, baina udaberria behintzat poztuko digu. Badakizu, libidoa pizten duela eta afrodisiakoa dela diote. Zakilixutek zein barietate landatzen ote du, zuria ala morea? ●

Etxeko landareak Hitzaldia antolatzeko

Osasun neurriak zainduta zure herrian Jakoba Errekondoren hitzaldia antolatu nahi baduzu, idatzi:

bizibaratzea@bizibaratzea.eus



BEROTEGI INDUSTRIALAK

GAUBEAKO MAKROPROIEKTUA: TOMATEAK URTE OSOAN JATEAREN ALBO KALTEAK



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Herbehereetako makroberotegiak. Honelakoak dira Gaubean ezarri nahi dituztenak.

2019an izan zuten lehen aldiz Gaubean eraiki nahi duten makroberotegi proiektuaren berri bertako herritarrek eta Elikadura Jasangarriaren Aldeko Mugimenduak. Tomateak eredu intentsibo eta industrialean ekoizteko egitasmoa da Gaubeako Tuesta kontzejuko poligonoan egin nahi dutena. Oraindik lehen fasean daude, baimenak eskatzeko prozesuan, baina elkarte eta herritar ugari proiektuaren kontra antolatu da honezkerok. Araban lehenagotik martxan zegoen Elikadura Jasangarriaren Aldeko Mugimendua, esaterako, horretan ari da burubelarrilanean. Arabako Batzar Nagusietan egon zen Jose Ramon Mauleon kidea urtarrilaren bukaeran haien arrazoiak aurkezten.

ALMERIAKO BEROTEGIEN EREDUA GURERA EKARRIZ

“Berotegi erraldoi hauetan tomatea urte osoan ekoiztea da asmoa: landarea zaku batean jartzen dute, eta bertan substantzia desberdinak gehitzen dituzte. Hidroponia bidez elikagaidun ura tantaka botatzen zaio”, azaldu du prozesua Mauleonek. Almerian ezagunak diren berotegiaren antzeko ereduak da Gaubean eraiki nahi dutena, baina tamaina are handiagoan. “Hemen ez dugu horrelakorik ezagutzen, ezta estatu osoan ere. Gaur egungo makroberotegi modernoak Herbehereetan erabiltzen dira, eta horietakoa da hemen egin nahi dutena: hamar metrotik gorako altuera dute eta kristal eta aluminioarekin eraikiak dira”.

Hispalus da proiektuaren atzean da goen enpresa, nahiz eta honetarako Cultivos Araba izeneko enpresa jarri duten martxan jabeek. Eroski supermerkatuak



JOSEANTONIOARCOS FILES.WORDPRESS.COM

tomatez hornitzen dituzte, eta haien arrazoi nagusietakoa da hobea dela “bertan” ekoiztetakoa saltzea kanpotik ekarritakoa baino. “Jasangarritasunaren kontra doa barazkiak beren garaitik kanpo ekoiztea, eta are gehiago eskala horretan: ikusi dugu lehenagotik ere horrelako nekazaritza eta abeltzantza makroproiektuek zer ingurumen-hondamendi eragin dituzten”. Hasiara batean berotegi proiektuak 20 hektarea hartuko zituela aurreikusten zuten, baina geroztik aldaketak egon dira, eta momentu honetan ez dago argi zenbateko azalera izanen lukeen. Gardentasun falta salatu dute mugimendutik.

LAN PREKARIZATUA OINARRIAN

Egitasmoaren bultzatzaileek hura defendatzeko darabilten beste argudioa, lan ikuspegitik egoera zailean dagoen eskualdera aukera berriak ekarriko ditue-

la da. Mauleonek, ordea, aldarri horren atzean tranpa dagoela uste du: “Denok dakigu nortzuk eta zein baldintza prekariorotan ari diren Almeriako berotegietan lanean. Guk, eredu txikiko eta familiarreko nekazaritzaren bidez bultzatu nahi dugu bertako landa garapena, eta horretarako ari gara lanean”.

Gure inguruan horrelako proiektuak martxan jartzea galarazi nahi badugu, nahitaezkoa izanen da gure kontsumo eredu guztiz birplanteatzea. “Ezin da naturari bizkarra emanez ekoizti: ezinezkoa da urte osoan tomateak jaten egotea”. Zentzu horretan, instituzioen inplikazio falta salatu du Mauleonek: “Harrigarria da instituzioek zer interes gutxi erakutsi duten agroekologiaren inguruan. Hitz onez betetzen zaie ahoa, baina praktikan, eskala handiko eta puntako teknologiadun eredu estraktibista da babesten dutena”. ●

IDA LUPINO

Pobreen begirada itzaltsua

Egun, Hollywooden emakume zuzendari gutxi da; datuak ez du inor harrituko, *Me Too* eta antzeko ekimenak gorabehera. Halere, Hollywoodeko industriaren sorreran, batez ere lehenengo filmetan, hainbat emakumek parte hartu zuten, sarritan haien lana ezkutatu izanagatik ere.

 JULEN AZPITARTE

1 920tik 1930era bitarte, 20 emakume inguruk 1.000tik gora filmetan egin zuten lan, ekoizle, gidoilari eta teknikari. Emakumeok filmen hainbat prozesutan parte hartu zuten, tartean errealizazioan, filmazioan edo aktoreen aukeraketan. Haatik, politika hori ez zen nahikorik zabaldu estudio handietan: Warner konpainiaren marxismoa agerikoa eta nagusia zen hasieratik; MGM eta Universal-en ostera, emakumeen lana funtsezkoa izan zen marketinean eta esparru teknikoan. Emakume horietako asko publizitatean edo aktore lanetan aritutakoak ziren. Idazleak, bestalde, *pulp* literaturatik zetozen, ikasketa akademikoak zituzten, eta haien ikuspegiari esker, emakumeen istorioak modernitatez jantzi ziren.

Zine-zuzendaritzan, baina, ez zen halakorik gertatu 1940ko hamarkada iritsi arte. Salbuespenak oso urriak dira: Alice Guy Blaché frantziarra edo Dorothy Arzner kaliforniarra. Horien ondotik, Ida Lupino (1918-1995) agertu zen. Lupino duela mende bat pasatxo jaio zen Londresko *music-hall*-eko artistez osatutako familia batean –*music-hall* deitzen zitzaion abesti herrikoiak, komedia eta dantza uztartzen zituen espektakuluari–. Garaiera txikiko, baina begi eta nortasun handiko emakume britainiarra kasualitatez hasi zen filmak zuzentzen. Dozena erdi film inguru filmatu zituen, besteak beste, emakume batek filmatutako lehendabiziko *noir*

filma, *The Hitch-Hiker* (Auto-stop egilea, 1953) bikaina.

Horretaz gainera, moralki gatazka-tsua ziren gaiak jorratu zituen bere filmetan, bortxaketa, nahi gabeko haurdunaldiak edo bigamia kasu, betiere emakumeen ikuspegi moderno eta independentea erantsiz. Izaera aurreratu horren ondorioz, estudio handiek ez zuten inoiz begi onez ikusi Lupino. Hartara, *The Filmakers* ekoizpen-etxe independentea eratu zuen bere senar eta gidoilari Collier Young-ekin. Lau urtetan Kaliforniako kaleetan filmatutako film merke baina sendoak filmatu zituen, zeinak gerora errotuko zen AEBetako zine independentearen aurrekari bihurtu ziren. Horiek horrela, Lupinok, emakumeen artean aitzindari izan ez ezik, besteak beste, John Cassavetes zuzendariak abiatuko zuen ekoizpen independentearen oinarriak ezarri zituen.

Antzezle gisa ez zuen Hollywoodeko izar handien aitortza edo arrakasta lortu. Haatik, aktore izugarria zen, “pobreen Bette Davis” zela esaten zuen arren. Antzeko izendapena erabili zuen bere zinegile lana epaitzeko: “Pobreen Don Siegel”. Lupinok onartu ez arren, kameraren atzean gauzatu zuen lana aparta izan zen, eta ez bakarrik genero-ikuspegiagatik. Bestalde, Lupinoren eta Siegelen ibilbideen artean antzekotasunak daude: biak ala biak B saileko pelikulak filmatzen hasi ziren, telebistan amaitzeko. Siegel, baina, pantaila txikitik iga-

ro ostean zinera bueltatu zen ekoizpen handiagoak egiteko, besteak beste, *Dirty Harry* (Harry zikina, 1971). Lupino ez zen sekula zinera bueltatu.

USTEKABEAN, ZINEGILE

Aktore britainiarra txiripaz abiatu zen zinegintzan: *Not Wanted* (Nahi gabekoa, 1949) izan zen zuzendu zuen lehen lana. Filmaren zuzendariak bihotzekoa izan zuen filmazioan –film horren gidoian Lupinok ere parte hartu zuen–, eta ondorioz, Lupinok bere gain hartu zuen ardua, bai eta filma amaitu ere, nahiz eta kredituetan ez den agertzen. Lupinok beste sei film egin zituen, eta filmotan, sasoiko ereduakin bat ez zetozen pertsonaia femeninoak dira protagonista: egoera oso konprometituetan dauden emakumeak dira, garaiko zineman oso lantzean behin agertzen zirenak. Pertsonaia horiek klase ertaineko emakume nerabeak dira, noraezean dabiltzanak, alderrai, esperientzia traumatikoak bizi ostean, besteak beste nahi gabeko haurdunaldiak, bortxaketa, bigamia eta ama-alaben arteko harreman gatazka-tsua.

Hala, *Not Wanted* haurdun geratu den neska bati buruzko filma da: familiarekin harremana hautsi eta haurra adopzioan utziko du. Halaber, *Never Fear* (Ez izan beldurrik inoiz, 1949) emakume dantzari bati buruzko filma da. Poliomielitisaren ondorioz, karrera profesionala eta bizitza pribatua hondatuko zaiz-



kio. Lehen bi film horietako protagonista Sally Forrest da, Lupinoren aurkikuntza pertsonala, talentu berriekin lan egitea gustatzen baitzitzaion –pertsoneaia femenoen kasuan, bere antz fisikoa zutenak aukeratzen zituen-. Urte batzuk geroago, 1956an, Fritz Lang zinegileak Lupino eta Forrest elkartuko zituen psikopaten filmen aitzindari *While the City Sleeps* (Hiria lo dagoen bitartean, 1956) pelikulan.

Gai horiek ez zituen sentsazionalismoz tratatu; horien arrazoia nortasunaren nahasteetatik urrun zeuden arazo sozialak zirela azaldu nahi zuen Lupinok. Horretarako, zine beltzaren ohiko ezaugarri ziren baliabideak erabili zituen: dokumentaletik gertu zegoen zuri-beltzeko dokumental estiloa eta B saileko aurrekontu murriztak.

Zinegile londrestarrak ez zuen bere burua feministatzat, baina bere filmak ikuspegi horretatik ikus daitezke egun. Martin Scorseseren hitzetan, Lupinok agerian utzi zuen emakumeek Hollywoodeko zineman betetzen zuten rol pasiboa.

GIZONEN AGINDUPEAN

Antzeppen-tradizio handiko familia batean jaio zen Lupino. Bere aita Stanley Lupino *music-hall*-eko aktore britainiar ospetsua zen. Senideen antzezpenerako grina XVII. mendean errotu zen, Giorgio Luppino txotxongilo egile italiarra Ingalaterrara iritsi zenean arazo politikoak tarteko. Lupinok, baina, gorroto zion antzezteari. Halere, aktore hasi zen 14 urterekin, aitari hutsik ez egiteko asmoz. Hollywoodeko estudio handien dinamikan sartu zen oso gazte. Bere lehen lan aipagarria *They Drive by Night* (Gauz gidatzen dute) da, Raoul Walsh zinegileak zuzendua 1940. urtean. *Noir* generoko *femme fatale* hiltzaile baten azalean sartu zen aktore ingelesa. Lupino harro zegoen “emakume zitalak, putak edo hiltzaileak” antzezteaz, nahiz eta eguneroan emakume dotorea izan. Lan horren ondorioz, sekulako kritikak jaso zituen, bai eta *celebrity* bilakatu ere. Ondoan, Humphrey Bogart izan zuen, zeinarekin oso harreman iskanbilatsua bizi izan zuen Lupinok.

Zine beltzeko film horretan egindako aktore-lan bikaina *noir* generoan egingo zuen ibilbide luzearen hasia baino ez zen izan, hainbat film itzaltsuetan parte hartu baitzuen, betiere gizon zinegile klasiko eta esanguratsuen zuzendaritzapean. Horietako film batzuk, gainera, zinearen historiako maisulan bihurtu dira; esaterako, urtebete beranduago estreinatu zen *High Sierra* (1941); berriro ere Walsh-ekin eta Bogart-ekin lan egin zuen Lupinok film horretan. Zine beltzaren gailurretako bat da filma, eta Lupinoren antzezpena aparta: bere alderik sentikorrena erakutsi zuen Roy Earle (Bogart) gangster hondatua-rekin maiteminduko den Marie Gars pertsonaia antzeztekoan. Horiekin batera, azpimarragarriak dira Jean Negulescoren *Road House* (Errepideko etxea, 1948), Nicholas Rayren *On Dangerous Ground* (Eremu arriskutsuan, 1950) eta Fritz Langen *While the City Sleeps* (Hiria lo dagoen bitartean, 1956). ●

UHARTE BATEN AUKERAZ

Paradisua uharte bat izan liteke. Infernua ere bai. Hala uste du behintzat Judith Schalansky idazleak, *Atlas of the Remote Islands* (Urruneko uharten atlasa, 2013) liburu ederraren egileak. Berlingo liburutegiko epeltasunetik atera gabe, hainbat eta hainbat mapa eta nabigazio karta ikertuz idatzi zuen liburua, ozeanoetan barrena, Europako kontinentetik urrunen aurkitzen diren 50 uharteren inguruko fabulak, mitoak, fantasiak eta kontaketak bilduz. Izan ere, uharteek, ur-gaziz inguratutako lur pusketa horiek, badute zer bait berezia idazleak eta irakurleak liluratsen dituen. Asko izan dira eremu txiki horiek ardatz gisa hartu dituztenak beren irudimenari hegala emateko. Hala egin du Abel Paúl konpositoreak: *Insula/Insulae* (latinez, uhartea) soinu instalazioa aurkeztu berri du Bilboko Artiatx espazioan.

JONE ALAITZ URIARTE **OIHANE IRAGUEN**

Agian, bidaiatu nahi eta ezin dugun garai hauetan, are eta bizigarriagoak egiten zaizkigu zentzumenen bitartez bada ere, beste norabaitera garamatzaten proposamenek. *Insula/Insulae* (*Eea...Null...Zorrotzaurre*) izenburua daraman obrak, Abel Paúl musikari eta konpositoreak Bilboko Zorrotzaurre uhartean kokatuta dagoen Artiach fabrika zaharrerako espreski sortutako soinu-instalazioak, bidaia bat gordetzen du bere baitan. Eraikin historiko horretako 2. eta 3. solairuetako espazioetan barrena soinu kartografia bat zabalitzen du Paúlek, espazioan bizkor hedatzen dena, guztia soinuaz blaituz; soinu-zuko-uharteak batuz, artxipelagoak sortuz.

Artiatx proiektua arte ekoizpenerako espazio independentea da, izen bereko -Artiach- gaila-fabrika zenaren eraikinean kokatzen dena. Hiru artistek -Irati Urrestarazu, Javier Arbizu eta Oihane Iranguen- kudeatzen dute, eta ikusizko arteen ekoizpenera eta erakusketak an-

tolatzera bideratuta dago. Artiach gaila-fabrika Bilboko Cantanarras kaletik Deustoibarra 70. zenbakira lekualdatu zen 1921. urtean, sute baten ondorioz. Kokapen berri horretan, ekipamendu moderno eta berriarekin, ekoizpen handiagoa bereganatu zuen: 40ko hamarkadan 600 beharginetik gora zuen enpresak, eta ekoizpenaren puntu gorenean -hots, 70eko hamarkadan- 800 langiletik gora izan zituen, gehienak emakumeak. Fabrika Bilboko penintsula horretan egon zen aktibo 1983. urte arte, produkzio-planta Orozkora (Bizkaia) lekualdatu zen arte.

Historia handiko lekua, beraz, zenbait artistek bereganatu dutena. Egun, bertako 2. solairutik lan egiten dute. Bide batez, esan beharra dago, lehen Zorrotzaurreko penintsula zena, irla bilakatu zela 2018ko urria geroztik, Bilboko Udalak hirian abian jarritako hiri-ordenantzarako azken operazioa dela eta. Proiektu haren Master Plana Zaha Hadid arkitek-

toak diseinatu zuen eta Deustuko kanalaren irekiera osoa barne hartu zuen, Zorrotzaurre penintsula uharte bihurtuz.

Artiatxekoek, 2020-2021. ikasturtean *Lekua Lekutan* zikloa jarri dute martxan, eta bere baitan bi esku-hartze artistiko programatu dituzte. Lehena, joan den udan gauzatutakoa: Julia Spínola artistaren *Rojamente* instalazio-eskultorikoa izan zen fabrika izandako espazio diafano eta argitsua eskuhartze-artistiko batekin elkarrizketan jartzen lehena. Aipatutakoa, artistari Euskal Herrian egiten zitzaion lehen bakarkako erakusketa izan zen, Okela Sormen Lantegiarekin elkarlanean egin zena. Erakusketan, Spínolaren eskulturak eta obra grafikoak aurkeztu ziren, forma eta materialen arteko errepikapen, serializazio eta etengabeko berrikusketa baten emaitza zirenak. Bigarren esku-hartzea Paúlen soinu-instalazioa da, Artiacheko eraikina eta Zorrotzaurreko uhartea oinarri dituen *site-specific* proiektua.



Abel Paúl (Valladolid, 1984) musikari eta konpositorea da, egun Malagan bizi da eta gaztea izan arren eskarmentu handia du: ikasketak Amsterdam, Berlin eta Huddersfield-en (Erresuma Batua) burutu ondoren, Suedia, Alemania eta Italian egin ditu egonaldi artistikoak, Erromako Espainiako Errege Akademian esaterako, eta bere musika-konposizioekin nazioarteko hainbat jaialdi eta lehiaketetan ere parte hartu du. Bere ikerketek sarri jotzen dute iturburu eta erreferentzia klasikoetara, eta Artiachen aurkeztu duen proiektuak ere badu literatura klasikotik eta mitologikotik eratorritako hainbat ainguraketa.

Insula/insulae soinu-instalazioak, agerian behintzat zortzi bat bozgorailu eta hamasei transduttore ditu, guztiak kable beltz eta luzeen bitartez Abel Paúlen bi teklatu eta ordenagailuetara konektatzen direnak. Transduttoreek fabrika zaharreko leihoetara itsasten diren bentosak dirudite, eta kableen bi-

dez, leihoetako beiretara eramaten ditu Paúlek interpretatzen dituen partiturak, eta erresonantzien bitartez dardaratxo eragiten dute. Dardaratxo horiek bueltan doazkio Paúli, gure organismoko odol-sistemak egingo lukeen antzera. Transduttore horiek egurrezko eskailerari itsatsiak ere badaude, baita espazioko zutabeei eta beste elementu arkitektonikoei ere. Iturburu horietatik jasotzen denak badirudi eraikinaren beraren arnas eta taupadak direla, edo hamarkada luzez zutik egon den eraikinaren hasperenak akaso; soinu horiek partituran txertatzen dira konpositoreak lehenagotik grabatuak dituen beste artxiboekin nahastuz. 2. eta 3. solairuetan eta bi espazio horiek lotzen dituen egurrezko eskaileran zehar *-zilbor-hes-tea-* hedatzen den soinuak, batzuetan ia entzunezinak diren dinamika leunak ditu, gutxitan suertatzen dira astunak eta nekez dira identifikagarriak.

Bestalde, proiektuak badu bere heda-

pen propioa argitalpen formatuan. Bertan konposizio-musikalaren partitura aurkituko dugu, uhartez uharte garamatzana, Eea uhartetik hasi, Ultima Thuletik eta Baltiatik igaro, eta Zorrotzaurren bukatu arte, hamaika irudizko uharte gutzira. Hainbat jatorritatik datozen soinuek, pentagraman erregistratzerakoan, forma ia abstraktuak hartzen dituzte, eta tarteka Cornelius Cardew-ren *Teatrise* konposizioa gogorarazten digute. Argitalpenak artistaren testuak biltzen dituen serigrafiaz inprimatutako posterra eta Cda ere biltzen ditu.

Urtarrilaren 16 eta 17 bitartean, Paúlek lau kontzertu edo entzute-saio eskaini zituen bertaratu ginenentzako. Ondoren, etengabeko loop-ean entzugai egongo den soinu-instalazio forma hartuko du *Insula/insulae*ak, aukera paregabea espazioan barrena igaro eta fabrikaren soinu-paisaiaz gozatzeko, urrunean Bilboko itsas-mugaldeak bistaraten ditugun bitartean. ●





LIBURUA

Bihotza, nora zatoz?



BIHOTZA NORA, ZU HARA

EGILEA: SUSANNA TAMARO
ITZULTZAILEA: FERNANDO REY

IGELA

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Susanna Tamaro idazle italiarraren lan zabaletik, momentuz euskaraz irakurri dezakegun testu bakarra da *Bihotza nora, zu hara*. Alde egin duen ilobari amonak idazten dion eskutitz luzea da liburu osoa. Eta 1992ko azaroaren 16tik abenduaren 22ra bitarte idatzitako hamabost eskutitzek osatzen dute. Hila-bete eta erdian urte askotako errepasoa egiten digu. Eskutitzen berezitasun handiena norabide bakarrekoak direla da. Hau da, ezagutuko dugun guztia amona Olgaren ahotik jakingo dugu. Baita ilobaren izaera eta egoera animikoa ere.

Amona hilzorian dago eta bien arteko xextrak leuntzeko eta osatzeko asmoz idazten du. Eskutitz gehienetan estruktura bera errepikatzen da: eguraldiari buruzko aipamena egiten du lehenengo

(euria, hodeiak, haizea, eguzkia, kazkabarra...). Oroitzapenei tiraka hasten da ondoren. Eta galdera erretoriko askorekin bukatzen ditu denak.

Zatirik handiena oroitzapenen inguruan egiten du. Oroitzapen horietan amona Olga bera da mugarri. Alde batetik bere arbasoak, eta beraz, bere iragana kontatuko dizkio ilobari. Eta beste alde batetik, alaba eta ilobaren kontuak izango ditu hizpide; iragan hurbilagoa, alegia. Oraingo egoera ere kontatuko digu tarteka.

Estiloa berezia du oso. Hiltzen ari den protagonista dugula kontuan hartuta, oso azkar ohartuko gara Olgak detaile ugari eman nahi dizkiola ilobari, gauza asko kontatu, bere jarrerak justifikatu, zalantzak partekatu, familiako genealo-

gia egin, sekretuak azaleratu eta batez ere maitasuna adierazi. Hau guzti hau barne bakarriketa indartsuaren bidez lortzen du. Eta indartsua bezain motela da, izan. Indar horrek harrapatzen duen irakurlea gustura arituko da sakontasun horretan. Erritmo bizia nahi duenak, ordea, nekez hartuko dio gustua. Barne munduko tempoak darabiltza autoreak, kanpoko frenesia albo batera utziz.

Ondoren idatzitako liburuak (*Ascolta la mia voce*, 2007) sekulako arrakasta izan zuen Italian. Iloba familiaren etxera bueltatzen deneko pasarteak kontatzen zaigu. Nik behintzat, gustura asko irakurriko nuke euskaraz (*Bihotza nora, zu hara* liburuaren itzulpen zoragarria egin du Fernando Reyk): Nola litzateke izenburua? *Entzun nire ahotsa*, adibidez? ●



MUSIKA

Edertasunez beteriko saioa

Euskadiko Orkestrak programa bera eskaini zuen Bilboko Euskalduna Jauregian urtarrilaren 16an. Argazki hau Bilboko kontzertuko da.



ENRIQUE MORENO ESQUISABEL / EUSKADIKO ORKESTRA

MOZARTEN ETA SIBELIUSEN LANAK

EUSKADIKO ORKESTRA

ZUZENDARIA: ROBERT TREVIÑO

LEKUA: GASTEIZKO

PRINCIPAL ANTZOKIA.

DATA: URTARRILAREN 22A.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Euskadiko Orkestrak kontzertu zikloak egiteko zailtasunen aurka borroka jarraitzen du, era guztietako egokitzapenak eginez: kontzertu laburragoak, egun bakoitzean bi saio, programen aldaketak...

Publikoak, zalantzarik gabe, abonuzikloa puntualki mantentzeko egiten den ahalegin guztia eskertzen du. Gainera, moldaketak arrakastatsuak dira. Azken abonukontzertuaren egitaraua aldatu egin behar izan zen, Behzod Abduraimov piano-jotzaile gonbidatuak ezin izan baitzuen Euskadira bidaiatu pandemiaren ondorioz. Horregatik, programatutako lehen obraren ordez, Mozarten 41. Sinfonia, *Jupiter* jo behar izan zuten. Egia esan, pena izan zen pianista uzbekistandarraren kategoriako bakarleri batez ez gozatzea, baina egia da Mozarten interpretazioa xarmaz eta ñabarduraz bete izan zela.

Sinfonia hori Mozarten ekoizpeneko azkena izan zen eta musikagileak forma musikal horretarako bide berriak ikertu zituenik esan ezin dugun arren, egia da sinfonismo klasikoan *Jupiter* maila gorenean koka dezakegula bere perfekzio gozoagatik. Garaipen izaera duen obra da, eskuzabala eta solemnea, eta beraz *Jupiter* ezizena jaso zuen, erromatar mitologiako jainko gorenaren izena, hain zuzen ere.

Euskadiko Orkestrak, Robert Treviñoren batutapean, lan horrek ezkututzen dituen ñabardura ugari erakusten jakin zuen, irakurketa fresko eta apainkeriarik gabe.

Programa osatzeko Jan Sibeliusek 3. Sinfonia jo zuten. Lan horrek Mozarten *Jupiter* sinfoniarekin tonalitatea partekatzen du, biak do maiorrean idatziak baitaude. Horrek ematen die, hain zuzen ere,

garaipenaren eta baikortasunaren aura.

Aitortu behar dut Sibeliusek musika oso gogoko dudala. Ez da beti guztiz baloratu, garai hartako Europa erdialdeko musikan nagusi ziren parametroetatik nolabait aldentzen delako. Baina bere balio handia bere berezitasunean datza. Bere musika paregabea da, pertsonala, bere estiloarekin oso konprometitua, beragandik bereizezina. Eta hirugarren sinfonia bereziki xarmagarria da. Nahiz eta bere lehen sinfonia basatia izan eta bigarrena patetismoz bete, hirugarrenak Vienako eskola klasikoaren antza duen argitasun ederra islatzen du. Euskadiko Orkestrak jakin zuen Sibeliusek orkestra bera zen instrumentu bakarria izaten. Ideien argitasuna eta soinuaren garbitasuna transmititzen jakin zuen, finlandiar konpositoreak bere lan garden eta zainduetan islatzen duena. ●



Ahotsa, denaren gaineratik

AMETS ARANGUREN ARRIETA SANTAS PASCUAS FESTIBALA

Motz egin zitzaidan kontzertua, oso motz. Denbora luzea neraman haren zain eta denbora hori guztia konpentsatuko zuen iraupena nahi nuelako, agian. Elurrari aurre eginda heldu ziren Kataluniatik Iruñera, Santas Pascuas festibalari bukaera ematera. Maria Arnal eta Marcel Bagés bikotea boskote bilakatu da laugarren lan honetan. Lehenengo diskoan produktore izandako David Soler gehitu zaie instrumentuetan eta Marta Torrella eta Helena Ros gazteek jarri diete ahotsa kantei, Mariari koroak eginez. Pandemiak gure ahultasuna agerian utzi duen honetan kontzertura hurbiltzeagatik eskerrak eman zizkiguten oholtza gaineratik. Badakizue, eskerrak ahulak garen.

Maria eta Marcel aulki banatan egotetik eszenifikazio landuagora pasa dira: eszenatokiaren gainean beste eszenatoki bat, sakonera handiko hiru eskaileraz osatua. Kanta bakoitzaren esentziarekin bat eginen zuten argiak

batetik eta abestien muina ziren hiru ahots zuri bestetik, arropa zuri eta zabalaz jantzirik, oinutsik.

Disko berriko kantekin ekin zioten kontzertuari: berrikuntzak datoz. Mariari dioenez, Iberiar penintsulako ahozko tradizioan du oinarria bere musikak eta aro digitaleko kultura libretik hurbildu nahi du tradizio horretara. Lehen bikote zenak eutsi dio melodiaren garrantziari, baina katek gero eta nabarmenago dituzte garai digitaleko tresnak. Hiru ahots gordin oinarri elektronikoen gaineratik, gitarra elektrikoak lagun.

Dakitena egiten hasi ziren: edertasuna, soinu errepresentatua. Kantu berriak ezagutzeko prest joan arren, mitikoen zain ere egon ginen. Eta espero baino lehenago heldu ziren *Canción total*, *Tú que vienes a rondarme* eta *La gent*, besteak beste. Bi modutara hel dakizuke Maria eta Marcelen musika: hasieratik harrapa zaitzake edo entzunaren entzunaz bahitu. Baina behin sarri-

MARIA ARNAL ETA MARCEL BAGÉS

NOIZ: urtarrilak 9

NON: Iruñeko Baluarte

tuta, barruraino sartzen da.

Bozak biluzik entzuteko aukera ere izan genuen, hiru ahots goxo bezain indartsu a capella. Eta gu adi, melodiaren irudi dotore eta apainduari jarraika. Taldeak ez du aukera galdu Baluarte ia diskoteka bilakatzeko. A capella kantatzetik ordenagailuz sorturiko atmosfera musikalaren gainean saltoka kantu eta dantza egitera. Nork esan du horrek ez duela tradiziozik?

Birako bigarren kontzertua zuten eta nabaria zen ilusioan eta "lehen aldi"-etako deskuiduetan. Gertutasuna transmititu zuen taldeak kanta baten estrofa bat ahaztu eta osorik errepikatu zutenean eta baita denok ezagutzen genuen *Canción total* abestiko esaldirik gogoangarriena elkarrekin kantatzera gonbidatu gintuztenean ere, "de esta civilí-lí-lí-lí-lí... zación".

Motz egin zitzaidan kontzertua, oso. Baina, badakizue, lurrinik onenak beti datoz flaskorik txikienetan. ●



Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1															
2															
3															
4															
5															
6															
7															
8															



EZKER-ESKUIN:

1. Fruitua, emaitza. / Aipamen.
2. Ahuntzaren ar. / Uharteak.
3. Nafarroako herria, Baztan udalerrikoa.
4. Argazkian.
5. Ibaietako lohi. / Liskarrean, eztabaidan.
6. Bakoitzak bat. / Hitzaldiak ematen dituen pertsona.
7. Garden ez direnak. / Larruzalean sortzen den geruza.
8. Erreten. / Zikiroaren haragi.

GOITIK BEHERA:

1. Balantza, orekarik eza. / Bilboko Okupazio Mugimendua.
2. Aldapa. / Molusku mota.
3. Garraio linea bat amaitzen den guneko instalazio multzo.
4. Urruma eginez.
5. Arras, zeharo. / Utikan!
6. Dozena-erdi (alderantziz). / Katuaren miaua.
7. Bidenabar.
8. Artilea egiten edo harrotzen duena.
9. Haur hizkeran, musua. / Zeru, izartegi.
10. Ukatu aditzaren infinitiboa. / Barazki hostotsuak.
11. Italiako hiria.
12. Landare lekadun.
13. Atzizki destinatiboa.
14. Tamaina handiko hegaztiak.
15. "Hark ... nola, nik hari hala".

Sudokua

ERRAZA



		7	5	3											1
2		9		1					8	3					
		8		9							4	2			
8	1	7	5												
3															9
								4	1	7	8				
9	6							3		8					
	3	2						1		9	6				
7								5	2	1					

ZAILA

			8			4									7
4						8	2								
5							9	4							3
		8				1									
		1			8		3				5				
						2					3				
2		4	6												8
						2	5								9
1						3				7					

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

- Fideorik gabeko zopa
- Aldapa
- Bizkaiko hondartza
- Gizena
- Tutua
- Otea hazten den toki
- Gai hidrogenodun
- Herri, aberri
- Itsusi
- Irrintzia
- Edo
- Higitzen den aire
- Berba, elea

SALDA
HITZA

EBAZPENAK

BETI SAN SILBESTRE.
URTEAREN AZKENIAN

ATSOTZITZA

1	5	9	3	4	8	7	6	2
8	6	7	2	5	1	3	4	9
2	3	4	6	9	7	5	1	8
7	4	5	9	2	6	8	3	1
9	1	6	8	7	3	2	5	4
3	8	2	4	1	5	9	7	6
5	2	1	7	6	9	4	8	3
4	7	3	1	8	2	6	9	5
6	9	8	5	3	4	1	2	7

ZAILA

7	4	8	6	9	5	2	1	3
5	3	2	8	7	1	4	9	6
9	6	1	4	2	3	5	8	7
6	5	9	2	3	4	1	7	8
3	2	4	7	1	8	6	5	9
8	1	7	5	6	9	3	2	4
2	9	6	1	4	7	8	3	5
1	8	3	9	5	6	7	4	2
4	7	5	3	8	2	9	6	1

ANAGRAMAK

ERRAZA

- ESKER-ESKUIN: 1. ZITUA, AIPU, 2. AKER, IRLAK, MALATZU, ZIKIROKI.
- GOITIK BEHERA: 1. ZABU, BOM, 2. IKE, LAPA, 3. TERMINAL, 4. URRUMAKA, 5. ORO, UT, 6. IES, MAU, 7. BAR, 12. ILAR, 13. RAKO, 14. ARAK, 15. NIRI.

Fernando Lakunza

HAIZEA DATOR
KALE NAGUSITIK



PARISEN IKASI, IRUÑEAN LUTHIER

Bilbo, 1948. "Bizitzaren kasualitate baten harira, gaita jotzen hasi nintzen. Gero, Escobar delako komisario bati *esker*, Parisera joan behar izan nuen. Han saxofoia jotzen ikasi nuen, eta musika tresnen mantentze eta konpontze lanen munduan sartu nintzen. Gero, itzultitakoan, Haizea musika denda zabaldu genuen 1980an, Iruñeko San Lorenzo kaleko tailer txiki batean. Nafarroako musikarien % 90ak erabili ditugure zerbitzuak. Halako denda espezializatu batek bezeroarekiko harreman etengabea dakar, familiakoa. Edozein merkatariri opako nioke gureak bezalako bezero atsegin eta fidelak izatea. 1986an etorri ginen hona, Kale Nagusira. Orduetik hemen gaude, eta betiko".

"Saxofoikadaka ezin da irizpide politikorik ezarri"

Orain 40 urteko teknologia berdinarekin aritzen dela dio, berdin saxoari zapatila bat aldatu ala tronpetari konkora bat berdintzeko. Gaita berreskuratzeko lanetan ibilia, Jarauta 69 txaranga ezagunaren fundatzaile, eta musikari askoren konfiantzazko luthier, Iruñeko Kale Nagusiko Haizea musika dendako leihotik begiratzen dio bizitzari, bereari eta musikarenari. Ez du handik erraz alde eginen: "Ez laztana, nik ez dut erretiratzeko inolako asmorik".

ANDER PEREZ ARGOTE **JOSU SANTESTEBAN**

Gaitarekin hasi zen dena.

Nire anaiak, eskolan piper egiten harrapatu ninduean, hala esan zidan: has zaitez nirekin gaita ikasten edo amari esango diot.

Zergatik nahi zuen hark zuk gaita jotzea?

Garai horretan gaitero bikoteak anaiak izaten ziren sarri: Perez anaiak, Elizaga anaiak, Montero anaiak... Anaiak erraztasuna zuten entseatzeko, elkarrekin bizi ziren etxe berean, eta beraz, aukera handiko apustua izaten zen. Eta gainera, anaiak ezagutzen ninduen, eta bazekien saiatua nintzela.

Nola sartu zen gaita zuen etxean?

Aniak txistua jotzen zuen hamalau urteetatik, baina gaitarekin maitemindu zen. Desagertzeko bidean zegoen musika tresna zen, baina noski, orduan ez zen desagertze bidean zeuden animaliak babesteko elkarerik. Eta, beraz, lan egin behar zen, animaliatxo horiek etxean erreproduzitzen, entseatzeko, eta ikasten. Honen moduko traste bat geneukan [grabagailua seinalatuz], magnetofoi

bat, eta horrekin aritzen ginen munduko gaitero guztien atzetik, nola eta zer jotzen zuten ikusteko. Buelta eta buelta aritu ginen, gaitero zaharren bila, informazio eta errepertorio eskean. Hor hasi zen lan hura, Javierrek [anaiak] gaur arte luzatu duena, desagertze bidean zen espezie hark batzuetan jasanezina ere bihurtu den hedapena izatea lortuz.

Ezkutuan aritzen omen zineten gaiteroen atzetik.

Noski, ez zutelako ezer transmititu nahi, ez zuten haien monopolio txiki hura galtzerik nahi. Orduan hiruzpatalau bikote zeuden, eta herri guztietarako deitzen zituzten; besteren bat agertzeak pastela banatu behar izatea zekarren. 1966an, sanferminetan aritzen ziren lau bikoteetako bat desagertua zela baliatuz, Iruñeko Udalarengana jo genuen, kontrata gintzaten. Eta hala egin zuten. Hortik gutxira, 1968an, Parisera joan nintzen, 1978ra arte.

Zer topatu zenuen itzultzerakoan? Parisen ikasi nuen ofizioa, eta han lor-



"Musikariak dira hoberen pasatzen dutenak, eta haiek ongi pasatzen badute jendeak ongi pasako du. Guretzat, txaranga da festak bizitzeko modu nagusia".

tu nuen makineria eta hornidura. Itzul-tzean, familia arrazoiak tarteko, Iruñean kokatu nintzen. Musika panorama *nava-rensensis*-a negargarria zen. Banda gehienak deseginda zeuden, La Pamplonesa, La Tafallesa eta baten bat gehiago baziren, baina gutxi. Ez zegoen musika eskolarik, eta kontserbatorioa eskola txiki bat besterik ez zen. Ez zegoen musikari askorik. Zortez, iritsi nintzenerako, nire aurrekoa, hemen zegoen musika tresna konpontzaila bakarra, desagertua zen.

Haren lekua hartu zenuen, eta Haizea musika denda ireki.

Bai, eta orduan hasi zen lana sortzen. Hasieran, batez ere, aspaldiko musika tresnen zaharberitzean aritu nintzen. Baina paraleloki, 1980ko hamarkadan, musikaren berpizkundea hasi zen Nafarroan; bandak berpizten hasi ziren, musika eskolak agertu ziren, eta abar. Horrek, noski, haizezko musika tresnen salmenta eta mantentze lanen gorakada ekarri zuen.

Asko aldatu da panorama ordutik?

Kontua da erabateko miseriatik gentoze-la. Bilakaera ikaragarria izan da. Gaurko ikasleen eta profesionalen mailak ez du

ordukoarekin zerikusirik. Orain mundu guztiak jotzen du, eta ongi. Bada beste kontu bat ere, eta da, musika, oro har, kultura neutroa dela: saxofoikadaka ezin da irizpide politikorik ezarri. Idazle batek edo margolari batek egin dezake, baina musika neutroagoa da, eta ondorioz, instituzio guztien babesa jaso zuen, eskuin-ekzter. Noski, gauza bat da neutroa izatea, baina horrek ez du esan nahi ezin denik baterako ala besterako erabili. Non jo, horrek ere badu bere eragina. Gurea, adibidez, manifestazio guztietako txaranga izan da.

Zer da zuretzat Jarauta 69 txaranga?

Jarauta [69] musikaren bitartez adieraztea maite duen lagun taldea izan da, da, eta izanen da. Kultura bereko giza talde bat elkartu ginen, eta hara eta hona aritu gara, beti ongi pasatzeko asmoz. Musikariak dira hoberen pasatzen dutenak, eta haiek ongi pasatzen badute jendeak ongi pasako du. Guretzat, txaranga da festak bizitzeko modu nagusia.

Eskutik hartuta datoz musika eta festa.

Jendeak festak behar ditu, eta musika tresna bat ikasteak, derrigorrez, taldean

jotzea dakar. Horren ondorioz, mota eta behar guztietarako musika elkarteak sortu dira, Baluartetik hasi eta Gazteluko Plazako kioskora, edo Jarauta kalera arte. Bestalde, kultura beti garatzen da parametro ekonomikoaren arabera: maila ekonomiko baxua duen herrialde batean, kultur maila jatorrizkoa izan daiteke, baina beti izanen da *low cost*. Ez da kasualitatea haizezko tresnak sokazkoak baino askoz gehiago zabaltzea. Askoz garestiagoa da biolinista on bat trebatzea, klarinetista on bat baino. Haizezko tresnak kostu txikiagoan ekoitz daitezke, eta ondorioz, eskuragarriagoak dira. Horregatik da ere musika kaletarragoa.

Orain ez da musikarik entzuten kailean.

Bukowskik badu esaldi bat, San Frantziskori buruzkoa: "70eko hamarkadan, mundu guztia zegoen kalean. 80koan, nire lagunak eta ni. 90koan, nire txakurra eta biok". Musikarekin hori pasa da: iragan urteetan denok geunden kalean, gero txaranga eta bere fan kluba, eta orain denok gaude miserian, fanak eta musikariak. Espero dezagun hau aldatzea, musika txinartarra jo behar badugu ere. ●



Merezimenduzko ARGIA Saria, Chill Mafiarentzat



CHILL MAFIAKO KIDE BAT
FEMINISMOARI BESARKATUTA

Aspaldi honetako polemikarik entrete-nigarriena eragiteagatik, eta Aitor Bizkarrara moduko fuertepentsalariak berriro Twitterreko mundu zoragarriara erakar-tzeagatik, ARGIAk erabaki du 2021eko Merezimendu Saria ematea Chill Mafia gazte mugimenduari. “Jaun ta Jabe-z ge-roztik ez da egon hain komedia onik pa-rajeotan, euskaraz sortua euskaldunen-tzat”, azaldu du epaimahaiko kide batek: “Emakumeek*, kultur eragileek**, euskal-gintzak***... Gure mundutxoan nor den orok esan du zerbait gaiari buruz, ezer ez

esateko baldin bada ere. Izan 15 urteko gazteek zein 35 urtetik gorako paternalis-toek, denak egurrean. Fenomenoa saritu beharra zegoen bai ala bai”. Garaikurra pozik jaso dute Chill Mafiakoek: “ARGIA Saria ze ostia duk hori! Gu pozik euskal musika astindu badugu, sables? Hortik ai-tzinerat gertatua guri dizerdigu izugarri baina perreoa maite duen Kattalin Miner ere urduri jarri dugu asike de putamadre. Gu beti prest iraultzarako pues palante jotake putos viejos ze ari gara zuekin den-bora alferrik galtzen”. ●

SAREAN ARRANTZATUA

-Ama, zer dago bazkaltzeko?
-Brokolia



@NIKSAMOTRACIA

Lodifobia jeltzalea
Azpeitian



Iker Muniain: "Athleticen beti euskaraz egiten dugu, eta Realaren kontra jokatzean, zubereraz"



MUNIAIN, BERBALAGUN BATZUEKIN, EUSKAL ADITZ LAGUNTZAILEAZ HAUSNARREAN

“Luze! Zabaldu hegaler! Eromena har-mailetan! Barkatzen duenak ezin du irabazi, e, Williams”. Iker Muniain Athletic-eko futbolari eta Euskal Herrian Euskaraz kolektiboko bozeramailearen hitzetan, ohikoa da zuri-gorrien partidetan horrelakoak entzutea. “Beti euskaraz berba egiten dugu geuk, salbu eta Realan kontra”, azaldu digu aldagelan ‘Txillardegí’ bezala ezaguna den Papá Muniainek. “Eurek ere majo menperatzen dute euskara, eta orduan, zertaz

hitz egiten ari garen jabetu ez daitezten, zubereraz hasten gara gu. Ikusiko bazenute natúl berba egiten duten Jon Guridik-eta ze despistatu aurpegiarekin begiratzen gaituzten. Manexak! Euskal selekzioarekin jokatzan dugunean ere halaxe ibiltzen gara, euskaraz etengabe. Javier Clementeren lan eskergerari esker, ez digu ergatibo bat bera ere ihes eta horrela, baina tira, zer egi... Ui barkatu, zuzenean sartu behar dut, orai Chirringitorat banoazu”. ●

OPARITU ARGIA

ZAINDU NAHI DUZUN HORRI

Puska dezagun izotza





19,5 €

%100 kotoi organikoa



Kolore berriak!

Bost kolore aukeran:
Urdina, beixa, arrosa, berdea eta grisa.

Lurra herriari deika

Jaten dugun elikagai bakoitzarekin, nekazaritza eta gizarte eredu bat bultzatzen ari gara. Beraz, jatea bihur dezagun egunean hiru bider egiten dugun plazerezko iraultza!

Erostekeo: argia.eus/azoka 943 37 15 45

Agroekologia mugimendua
eta  **ARGIA** elkarlanean

Kamiseta erosita, 2€-ko ekarpena egingo diozu agroekologia mugimenduari eta beste hainbestekoa ARGIAri.